



GOIERRITARRA



Neguko festa beroak Idiazabalaren

Arg.: FOTOEIXE



h e m e n

DISEINU ALTZARIAK

URDANETA KALEA, 56 • 20240 ORDIZIA

TFNOA./FAXA: 88 46 41

KALITATEA ETA ZERBITZUA ZURE ESKURA

SAN BALENTIN



- Ezkontzako lora sortak
- Eliza eta kotxeen apainketa

*Lore apainketa
mela guztiak
egiten dira*

**SAN BALENTINETAKO
AUKERA ZABALA!**

☎ 88 98 83 Geltokiko kioskoa
ORDIZIA

HIDALGO

Bitxitegia - Erlojutegia - Opariak

**Diseinua
Kalitatea**

**Berrikuntzak
Garantia**

Legazpi Kalea, 3 88 04 06 ORDIZIA



Yañez

**BITXIDENDA
ERLOJUTEGIA**

Kalitatezko bitxigileak

Prezio egokiak

Aukera zabala

*Diamantedun solitarioak 10.000 pztatik
1. legezko urrezko kolganteak 1.500 pztatik.*

*Gure artikulu guztiak dohain
grabatzen ditugu*

Nagusia, 11 ☎ 88 04 99 BEASAIN



izadia

Lora-denda

- * Ezkontzak.
- * Lore-konposizioak.
- * Koroak.
- * Etxe-sarrerak eta bulegoak.
- * Lorategi proiektuak.

San Inazio, 9 ☎ 88 14 40 BEASAIN



LUBERRI

Loradenda

- * Lore sortak
- * Lore lehorren zentruak
- * Opariak
- * Ezkontzetako sorta eta apaingarriak

**J.M. Barandiaran Plaza, 3
☎ 16 04 79 ORDIZIA**

Garmendia


Bitxitegia

Maiteminduentzako bitxiak

Kale Nagusia, 18

☎ 88 15 32

BEASAIN



NEGUERUELA

**BITXITEGIA
ERLOJUTEGIA**

**☎ 16 08 30
Hirigoien, 12
LAZKAO**

*Maitasuneg
betetako
opariak*

**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:
Goierritarrak Kultur Elkartea

Dorre-etxea, 1
(Postetxe gainean)
124 posta-kutxa
20240 Ordizia
Tfnoa: 88 96 12
Faxa: 88 27 19

Zuzendaria:
Loinaz Agirre
Maketazioa:
Mikel Albisu
Publizitatea:
Josune Agirre
Argider Mujika

Erredakzio Batzordea:
Mikel Albisu, Joseba Telleria,
Ane Martin, Loinaz Agirre eta
Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:**

Joseba Telleria, Aitor Calvillo,
Xabier Urteaga, Urko Irastorza,
Koldo Urrestarazu, Ederne Albi-
zu, Josune Aldabe, Aitor Arrue,
Rufino Iraola, Pantxike Agirre,
Igor Aristegi eta Amagoia Mu-
ruamendiaraz.

**Fotokonposizio eta maketazioa:
GOIERRITARRA.**

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9. Oñati)

Tirada: 6.800 ale.


ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, aldiz-
karian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



**Jorge Oteizaren eskultura
Ordizian, Lekuona, Sarriegi
eta Yoyesen omenez**

Urtarrilaren 20an, jarri zu-
ten, Jorge Oteiza bertan
zela, eskultore oriotarraren
'Conjuncion temaria I so-
bre 2' lana.

Lan honekin, Ordiziako
3 pertsonai omendu nahi
izan ditu Oteizak: Nikolas
Lekuona eta Jose Sarriegi
pintoreak, eta Maria Dolo-
res Gonzalez Katarain
'Yoyes' (ETAk 1986an hi-
la).

Oteizak berak zuzendu
zuen eskulturaren kokape-
na. Berritu berria eta Jose
Sarriegiren etxe inguruko
Goen plazan jarri dute. De-
na den, bere lekutik kendu
behar izango da, aingura-
tze lanak egin ahal izateko.

Trilogia da Oteizaren
azken lana. Hiru kuboide
ditu, 3na metroko altura

eta zabalera.

Inaugurazioa

Eskulturaren inaugura-
zio ofiziala martxoan egin-
go da. Beste ekitaldi bat-
zuek ere prestatzen ari dira
ordurako. Besteak beste,
Jorge Oteiza, Nikolas Le-
kuona eta Jose Sarriegiren
lanekin osatutako erakus-
keta izango da, hainbat hi-
tzaldirekin batera.

Oteiza eskultorea 30eko
hamarkadan askotan bildu
zen Jose Sarriegik Goen
kalean zuen estudioan, Jo-
se Sarriegi eta Nikolas Le-
kuonarekin batera.

Oteizak San Sebastian
egunez Ordiziara egin
zuen bisitaldian, omen-
duen familiartekoekin bi-
ltzeko aukera izan zuen.

BOTA BERTSOA



Juan Ramon Gerriko
(Goierriko bertso-eskolako
ikasle ohia)

San Blasak

Otsailak hirua
da San Blas eguna
Festa egun ugari
hau da nahi duguna
Umorez argitzeko
negu beltz iluna
Jai haundiak direla
ez al da entzuna
Hona hurbildu bedi
frogatu nahi duna.

Bertsolari, dantzari
ta triala bera
Txirrindulari froga
ta krosa gainera
Gauetz nahiko parranda
atetik atera
ondo aukera zazu
aukeran aukera
Parrandazale fina
sentitzen bazera.

*Eusko Jaularitza-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta*

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Erasoak**nonnahi eta noiznahi.
Buka ditzagun orain!**

Erasoak, ezerosoak eta kez-
kagarriak izateaz gain,
amaigabeak izanaz jarrai-
tzen dute. Azken bolada honetan erasoak areagotu eta modu bortitzera pasa direla-
rik. Erasoa aspaldidanik gertatzen dira eta salatuak izanagatik ez da bitarteko-
rik ezartzen behin betikoz amaitzeko eta nola ez eraso-
tzaileekin neurri zehatzak hartzeko. Zer gertatzen da? Erasoa, ez dira kasualitatez ematen, gizarte honetan gizonezko asko eta askok oso barneratua daukate emakumeak beraien menpe daudela, beraien esanetara eta bizitza propiorik gabe. Honetan gizon hauek babesten dituzten epaile eta abogatuak paper oso garrantzitsua daukate. Zergatik? Emakume batek salake-

ta ipiniagatik, gizona nahiz eta atxilotua izan 2 edo 3 egunera kalean baitago, alarma sozialik eragiten ez duenaren aitzakipean. Azken urteetako balantzeak ikusi besterik ez dago, hau horrela dela ziurtatzeko.

Beraz, ondorioz salatuak izaten diren erasotzaile horiek emakumeen bizitzarekin amaitzen badute ere, neurriak hartu ordez, soluzioaren beharrez eta kodigo penalaren aldaketaz, hitzeginen baita, beraz hitza eta ekintzen artean konsekuenteak izatea eskatzen dugu.

Guzti honetan sartzen ditugu hainbat alderdi politiko, sindikatu eta agente sozial ere. Beraien erakunde barruan dauden erasotzaileen aurrean jarrera aktiboa hartu dezatela eskatzen diegu. (Zamarreño, Ertzaína...).

Bestalde, esan baita ere erasotuak izaten diren emakume hauei babesa eskaini behar diegula eta erantzuna emateko garaian gizartea izatea kalera irtengo dena, arazoa ez da pribatua, bai-
zik eta emakumeon aurka (kolektibo moduan) ematen den indarkeria baita.

Eskatzen duguna zera da:

1.- Gizon bat salatua izaten denean, espetxeratua izatea, kalean geratuz gero berriro ere emakumea eraso jasatzeko arriskuan baitago.

2.- Salaketan aurrean, tramitazioak azkartzea.

3.- Erasotuak diren emakumeei laguntza ematea, bai juridikoki, psikologikoki zein ekonomikoki, beharrezkoa izanez gero.

Beraz, lehenbailehen legea aldatu eta urratsak ematea eskatzen dugu, behingoz

erasoekin amaitu ahal izateko.

Ordiziako Egizan

To! Belarrondokoa!

"Egin ez eta egiten utzi ez!" Esaera honek ederki biltzen du AEKren aurka, hainbeste eta hainbeste erdaldun euskaldun eta euskaldun alfabetatu dituen elkartearen aurka, hitza dariola, hitz pozoindu dariola dabilen ez dakit nork egin duena. Zozte 'sasiari su ematera' sasia dagoen lekura!; ziur zuengandik gertu izango duzuela.

*Joxepa Madariaga
(Lazkao)*

MULTIOPTICAS**Zure begientzako onak**

Barietate haundiko monturak, gaur egungoak, erakarleak, familiako edozeinentzako pentsatuak. Kalitate hoberenarekin, diseinu berritzaileekin. Eta sinestezinezko prezioarekin : **3.150 pta.** MultiOpticas-en aurkituko duzu bakarrik horrelako bilduma.

Zure poltsikorako onak

3.150 pta.

Bonardi Bilduma

LARRAÑAGA

Ibargarai, 16 Tel. 76 15 75 **BERGARA**
J. Carlos Guerra, 1 Tel. 79 29 95 **ARRASATE**
J. M. Barandiaran Enp. Tel. 88 99 88 **ORDIZIA**

EIBAR

Bidebarrieta, 2 Tel. 20 05 22 **EIBAR**

ERRETERIA

Pl. de La Esmaltería, 7 Tel. 51 78 11 **ERRETERIA**

Eta ordaintzeko orduan, abantaila ugari :



- MULTIOPTICASen kreditu-txartela. Diru barik erosteko modurik errazena.
- Ordaintzeta 30, 60 edo 90 egunetan atzeratzeko modua izango duzu, batere errekargu barik.



LORTU EZAZU
MULTIOPTICAS-en
"TRAVEL CLUB"
PROGRAMAKO PUNTUAK

TXANDAKA

Garapenaren zirimola



Kristau zintzoentzat hiru-garren milurteko izango denaren ateurre diren egunotan, hagitz arrunta da garapen eta progresuaren inguruko auzia. Izan ere, lurralde gehienetako buruek jasaten dute garapen obsesioa eta eurengain hartzen dute gizar-tea eraldatzeko ardura. Jauntxoek gainera, hitz potoloak ahoskatuz azaldu nahi izaten dute burututako lana, eta horrela, gurean gaurdaino egin diren eta biharko egin asmo diren sarraskiek Progresu izendapena hartzen dute, progresua galbidearekin harremanatuz. Halere, nik neuk progresua beharrezkotzat jotzen dut, hau berez (etimologikoki) aurrerapauso eta hobekuntzaren sinonimo baino ez baita. (Progreso = aurrerakuntza. "3000 hiztegia"). Ene aburuz, ondorengoa da egin beharreko galdera: Non dago progresua? (Zer da progresua?).

Gaur egunean, ezjakitearen gailur diren garaiotan, gutxi batzuen ekimenak garapen eredu ezarri batean sinestera bultzatzen gaitu, beronen inguruan hausnartzeke, eta horrela, zientzia eta teknologiaren alorrean gauzatzen den edozerk hezuramaitzen du gure progresu totema. Alabaina, maiz balizko progresua atzerapausoa izan ohi da (naturarekiko uztartzearen etetea, kulturaren urradura...). Aldaketak ez dira kaltegarriak jatorriz, baina "progresu" edozeri aplikatu dakiokeen izendapen hutsal bilakatzen den heinean, progresuaren zentzua lausotu egiten da.

Igor Aristequi

Eutanasiaren alde ala kontra zaude?



Aitor Arza
24 urte, langilea
lazkaotarra

Ondo iruditzen zait Eutanasia. Pertsonaren oinarritzko eskubidea askatasuna da eta berak askatasun osoa dauka bere buruarekin zer egin erabakitzeko, besteak molestatu gabe.

Maria Pilar Amundarain
53 urte, dendaria
ordiziarra

Ez naiz aldeko, bizia ezin delako nolanahi kendu. Sufrimenduaren aldekoa ere ez naiz. Baina nik etxeko bati ez nioke entxuferik kenduko. Beraz besteengandik ezin dut gauza bera esan.



Manu Larrañaga
37 urte, irakaslea
lazkaotarra

Alde nago erabat. Horrelako baldintzetan bizitzea baino, hobe ez bizitzea. Norberaren bizitzaren jabe, norbera da.



Xikel

NEVES

BANATZAILEA

Urdaneta, 41

**ARMAIRU
ENPOTRATUAK
NEURRIRA**

☎ 161606

ORDIZIA

ARRIZAR BODEGOIA

Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara

Zaldizurreto, 7 ☎ 88 98 44 **BERSAIN**

CGZ GOIERRI

Ikerketaren Zentrua

Gida-agiri eta arma baimenatarako ikerketak

Astelehenetik ostiralera: 11:00etatik 13:30etara.
Larunbatetan: 9:30etatik 11:00etara.

Garagarza Pl. 10 ☎ 888734 **ORDIZIA**

OSKARBI
OINETAKOAK

De Alde Martens

Mota guztietako
eta adin guztien-
tzako oinetakoak.

Kickers

K. Nagusia, 25
☎ 88 19 44 **ORDIZIA**

ZINEA

GOIENIZ:

Otsailak 12, 'La otra America', 21:00etan, Beasaingo Usurbe Antzokian.

BEASAIN:

'Se lo que hicistes el ultimo verano'. Larunbata 31: 19:30 - 22:15; igandea 1: 17:00 - 19:30 - 22:15; astelehena 2: 19:30 - 22:15.

ORDIZIA:

'The game'. Ostirala 30: 22:15; larunbata 31: igandea 1: 19:30 - 22:15; astelehena 2: 19:30.

'Spiceworld. The movie'. Igandea 1: 16:45.



'La otra America'

Goran Paskaljevic
(Fra-B.H-Ale-Gre, 1995)

'La otra America' filmean migrazioa, bere ezaugarri guztiekin aurkezten zaigu: erbestea, bidaia, nostalgia, mestizaia. Brooklyn-go etxe ziztrin batetan bizi diren bi migrari (Bayo, yugoslabiarrak, eta Alonso espainiarrak) eta beraien familiak dira protagonistak.

Haria, desplazamenduak bi familietako belaunaldi-tan duen eragin desberdinean oinarritzen da. Lehenengo ez da egoera berrira moldatzeko gai, hirugarrenak ahal duen moduan bizirik dirau, moldatuz eta azkenik integratuz. Bitartekoa, protagonista alegia, banatuta bizi da, noraezean, bere ametsean trabatuta: herrialde galdua, sustraia urruntasuna, norberaren identitatea eztabaidatua.

BERTSOLARIAK

BEASAIN:

Otsailak 4, Bertso-afaria, 21:00etan, Arrano elkartearen. Bertsolariak: Jokin Sorozabal eta beste bertsolari batekin. Txartelak salgai 2.000 pezetan, ohiko lekuetan.

IDIAZABAL:

Otsailak 4, Andoni Egaña eta Sebastian Liza-so, 12:00etan, plazan.

ANTZERKIA



BEASAIN:

Urtarrilak 30, Ttanta-ta taldearen 'Shakespeare osoa (gutxi gorabehera)', Usurbe Antzokian, 22:15etan.

ORDIZIA:

Otsailak 6, Karra Elejalderen 'La cabra tira al monte', Herri Antzokian, 22:15etan.

BESTELAKOAK

IDIAZABAL:

Otsailak 2, Takolo, Piritx eta Porrotx pailazoak, 18:00etan, Igarondo pilotalekuan.

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Otsailaren 8a arte, Jose Mari Azurmendiren erakusketa, Usurbe Antzokiko erakusketa-aretoan.

Martxoaren 13a arte, IV. Aterpe pintura lehiaketan aurkeztutako lanen erakusketa, Aterpe tabernan.


ORDIZIAKO



Kale Nagusia, 10

SUKALDEKO ALTZARIAK


Sukaldea berritu nahi duzu? Zatoz eta ikus ezazu gure erakusketa



Taldekoa

88 23 00

ORDIZIA



BERGARA
Barrenkalea, 35
76 03 98

BEASAIN
Nafarroa Etorb., 1
88 48 65

ARRASATE
Otalora z/g
79 11 72



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
88 87 02
BEASAIN

ORDIZIA:

Urtarrilaren 30a arte, Ignazio Elizaran Txapartegiren pintura erakusketa, Barrenan.

Otsailaren 6tik 20ra, Arrate Perezen pintura erakusketa, Barrenan.

MENDI-IRTEERAK

Ataungo mendizaleak:

Otsailak 8, Ataun ezagutuz kanpaina.

Beasaingo mendizaleak:

Otsailak 1: Bianditzera (840 m.).

Otsailak 8: Kalamura (708 m.).

Matximentako jaiak

Otsailak 5, osteguna: 12:00etan, Herri Meza. **Ondoren** hamaiketako jubilatuentzat eta omenaldia egingo zaie hiru herritarrei. Ilunabarrean erromeria, 'Aizpurutxo Anaiak'-en eskutik.

Otsailak 7, larunbata: 20:30etan, bertso-afaria Gorrotxategi eta Muruarekin. Eta Laja eta Landakanda trikitilariekin.

Otsailak 8, igandea: 11:00etan Herri Meza. **Ondoren** ume jolasak, pelota partiduak eta Beasaingo Dantzariak. **17:00etan** herri-kirolak, Arria V. Azurmendiren aurka. Bukatzeko ahari jokoa.

DEBALDEKO IRAGAR-

Etxebizitzak:

☐ Pisua salgai Altsasun, berritua eta ganbareekin. (948) 56 35 56.

☐ Zaldibian pisua salgai. Herri erdian. 216653.

Salerosketak:

☐ Txirrindua salgai, Vitus koadroarekin. 161881.

☐ Vaillant berogailua salgai. Modu onean, Berria. 10 litrokoa. 88 99 32.

☐ Hozgailu edo frigorikoa salgai. Urtebetekoa. Aspex markakoa. Neurriak: 1,46 m. x 55 zm. 886778.

☐ Peabe TKO baxu anplia salgai, 80 batiokoa. 88 47 68. Jon.

☐ Sanyo Walkmana eta forro polarra salgai. Koldo. 88 22 78.

Lana:

☐ Neska bat prest dago etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. Esperientziaduna. 16 00 99.

☐ Bajista bat behar da herriz herri jotzen ari den talde baten lan egiteko. Seriotasuna. Xabi. 801124.

Bestelakoak:

☐ Eskoriatzan ikasten dugun hiru neska gara eta eguneroko joan-etorriko Zumarraga-Gasteiz norabidea egiten duten kotxeekin harremanetan jarri nahi genuke, garraio publiko ezagatik. Oztopo handienak Zumarragara bueltatzeko ditugu, ordubatean klasetik aterata. Ordaintzeko prest geundeke. Julene 72 24 57.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Cuesta (Nafarroa Etorb. 39-Beasain). 88 05 87.

Urtarrilak 31- Otsailak 1: Urbizu (Kale Nagusia, 8 - Beasain). 88 02 32.

Otsailak 7-8: Jauregi (Santa Maria, 2 - Ordizia). 160949.

**ZALBIDE
SAGARDOTEGIA**

Txitxarro eta sardinak
parrilan



© 65 21 76

ABALTZISKETA

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27 ☎ 882007 BEASAIN



IKASTEK AKADEMIA

Kalitatea eta profesionaltasuna

- ✓ Eskola laguntza
- ✓ Maila eta arlo guztiak
- ✓ Unibertsitate-maila
- ✓ Banakako laguntza
- ✓ Talde txikiak

Informazioa:

☎ 16 01 20 Joan Iturralde, 5 BEASAIN

Argazkiaren nonen ezinon laguntza:

En la edición de esta publicación colabora:

kutxa

*fundazioa
fundación*

ERREZETA



Mari Karmen Mujika
Mujika jatetxea
Idiazabal

ONDDOZ BETETAKO BERENJENAK

Osagaiak: 3 berenjena, 300 gramo onddo, 6 goilarakada irin, esnea, oliba-olioa eta gatz.

Berenjenak, erditik ebaki, luzetara. Gatz eta olio piska bat bota eta 10 minutuz labeaz sartu. Berenjena hustu zentimetro erdiko lodierako haragia utziz alboetan.

Bexamela arina egin. Berenjenaren haragia, txikituta, eta aurretik eginda ditugun onddoak bota, nahastu, eta berenjenak bete. Minutu batzuz gainerretu edo gratinatu.

AHOLKUA

Jubilazioa

ra erantzuten saiatzea:

- Nola konponduko naiz diru aldetik?
- Zein aldaketa izango dira nire osasunean?
- Nolakoak izango dira familia eta lagunetik harremanak?
- Zertan pasako dut denbora libre?

Azken puntu honetan bereziki, aldaketa izugarria izango da jubilazio garaian. Lanean genbiltzan 8 ordu pasatzen genituen lanean, 6 ordu beste zenbait eginbeharretan eta aisialdirako bi ordu besterik ez ziren.

Baina jubilatzeko garen batz besterik 8 ordu deskantsatzen eta 3 gure

eginbeharretan pasako ditugu. Hamabi ordu edo eta egun erdia gelditzen delarik gure denbora edo denbora libre bezala.

Agian egokia zera genuke, denbora libre berantolatuta eta hautabide batetan burutzea, horretarako '3D' izeneko atalei erreparatu: dibertsioa, atsedena eta garapena; garapen pertsonala. Garapen pertsonala norabide desberdinetan bidera dezakegu, gurekiko (irakurri, kirola eginez...) besteekiko (familiar lagunduz), lagunekiko, herriarekiko..., guztietan ahalik eta partaidetza zuzenena izanez.

Ez dezagun ahaztu, aurrean topatuko dugun garai honetan helburuak izatea ezinbestekoa dela eta hauek burutzeko, gure bizitzaren gidari geu izan beharko gara, izan ere bizitzarekiko borroka ez da jubilazioarekin amaitzen.



Amagoia
Muruamendiaraz
gerontologa

Jubilazioa gure bizitzako aldaketarik garrantzitsuenak da, alde on eta txarrak dituelarik.

Une honetan, lan arloan jubilatu, sozial mailan agure, lege aldetik pentsionista eta familiako aitona-amonak bihurtuko gara.

Egoera berri honek moldaera berri bat eskatu du, egokitze prozesu hau ongi eramateak, jubilazio zioriontsuago bat izatean bere eragina izango du.

Beraz garrantzitsua edo interesgarria litzazuke noiz jubilatu garen jakitea eta aldez aurretik zenbait galde-



Sagardotegia



aulia

Aulia-enea
☎ 80 60 66 **LEGORRETA**

IBAI-ONDO

**ZURGINTZA
ALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**



Antzizar Auzoa, z/g
☎ 880543 **BEASAIN**

ZUHAIZKI
S. A. L.

ZURGINDEGIA



✕ **LEIHOAK, ATEAK eta abar**
✕ **ESKAILERAK NEURRIRA**

Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 67 36 11
Faxa: 67 36 55



X ENKEGI
ETXE-AROZKINTZA

**Diseinuak neurritan
Larunbat arratsaldeak irekita**

Erakusketako ☎ eta faxa: 889113 - ☎ mugikorra: 908 863591
Senpere Merkatalgunea, 38 BEASAIN

**Sukaldeak
Ateak
Zoruak
Armairuak**

'Antzerki garaia'-ren teloa gaur altxatuko da Beasainen

4. urtez jarraian Beasaingo eta Ordiziako udalek elkar-lanean antolatutako 'Antzerki garaia' kanpaina, gaur, urtarrilak 30, jarriko da martxan, Ttanttaka taldearen 'Shakespeare osoa (gutxi gorabehera)' lanarekin. Apirilaren 24ra arte, 8 antzezlan izango dira ikusgai. Antolatzaileen esanetan, antzerki denboraldi berria, kalitatezkoa, gaur egungoa eta orekatua da.

Kalitatea izan da 'Antzerki garaia' zikloa antolatzailerik erabili duten irizpide nagusia. Horrekin batera, muntaia, lengoaiari emandako trataera, hizkuntza, konpainiaren eskarmentua eta profesionaltasuna eta obren arrakasta ere hartu dira kontuan. Saio guztiak 22:15etan hasiko dira. Ondorengo egitaraua gelditu da:

Urtarrilak 30, Ttanttaka taldearen 'Shakespeare osoa (gutxi gorabehera)', Beasainen, euskaraz.

Otsailak 6, Karra Elejalderen 'La cabra tira al monte', Ordizian, gazteleraz.



Iñaki Hidalgo, Arantxa Aseginolaza, Raul Lakalle eta Miren Kortaberria Beasaingo eta Ordiziako udaletako kultur zinegotziak eta teknikariak.

Otsailak 27, Maskaradaren 'Nerudaren postaria', Ordizian, euskaraz.

Martxoak 6, Lom taldearen 'Imprebis', Beasainen, gazteleraz.

Martxoak 27, Ñake taldearen 'Comicos muy pelogrosos', Ordizian, gazteleraz.

Apirilak 3, Ados Teatroaren, 'Lamiak', Beasainen, euskaraz.

Apirilak 17, Hika taldearen 'Hau komeria!', Ordizian, euskaraz.

Apirilak 24, Ana Pimentaren 'La coraje', Beasainen, gazteleraz.

8 taldeetatik bakarra da kanpotarra, valentziarra, gainerakoak Euskal Herrikoak. Horietatik erdiak, euskaraz izango dira.

Antolatzaileek diotenez, laugarren edizio honek, finkapena adierazten du. Iazko urteetako arrakastari eutsi nahi diote, antzerkira joateko ohitura galdua zuen publikoa berreskuratuz eta publiko berria erakarritz.

Emanaldi bakoitzeko sa-

rrera 750 pezeta kostako da. Denboraldi osorako abonak ere izango dira, 4.500 pezetan. Ordizian Herri Antzokiko leihatilan eta Barrena Jauregian, eta Beasainen Usurbe Antzokiko leihatilan eta Udaleko Kultur Sailean eros daitezke abonak.

10 sarrera baino gehiago eskuratu nahi dituzten kultur taldeek, ikastetxeek, e.a. sarrera salneurri berezia izango dute: 450 pezeta sarrerako. Taldeko sarrearen eskaerak lortzeko dagokion Udaletxeko Kultur Sailean aldeztu aurretik jakinarazi behar da.

Antzerki eskolarra

Publiko berria antzerkira inguratzeko asmotan, Beasainen, ikastetxeentzako bereziki prestatutako egitaraua prestatu da. Haur Hezkuntzako ikasleentzat, martxoaren 9rako, 'Txanogorritxu' obra antolatu da. Martxoaren 10an, Lehen Hezkuntzako haurrentzat, 'Pinotxo 2000' izango da. Eta martxoaren 11n, D.B.H. koentzat, 'Pupilo'.



MUJICA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 88 11 94
ORDIZIA

OSTEOPATIA

Jose Gisasola Dr. Koleg. Zkia. 3998

BIZKARREKO MINAREN ESKUZKO TRATAMENDUA

- LUNBAGO, ZIATIK, HERNIA DISKAL
- ZERBIKALGIA, ZEFALIA, MIGRAINIA, ARTROSIS.

R.P.S. 213/97

Eskatu ordura: ☎ (929) 45 20 53 - 88 92 22
Oriamendi, 3 - 2. ezk. - BEASAIN

JAUREGI

TOLDOAK s/I

Tfnoak.: 88 02 43 - 88 01 33
BEASAIN

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644

RPS: 420/95

**Helduen, umeen, bikoteen eta
sexologi tratamenduak**

AURRE ZITA

☎ 88 72 21

Oriamendi, 3 - 2. ezk.
BEASAIN



Bakearen eguna Beasainen, 'Bakea da bidea' lemapean

Gure Eskuetan eta Gesto por la Paz bake taldeek Bakearen eguna antolatu dute otsailaren 1erako, Beasainen. Gandhi hil zutela 50. urte betetzen dela eta ospakizun berezia egin nahi izan dute aurten, "urtebetetze triste hau gogorarazteko".

Iaz ere gogoratu zuten egun hau Beasaingo Txindoki institutuan. Aurten ikastetxetik herrira eta Goierri osora zabaldu nahi dute. Atzo, urtarrilak 29, Txindoki institutuan atsedean garaian, bakearen inguruko musikaz alaiturik, pankartak eta panel informatzaileak jarri zituzten. Igandean, otsailaren 1ean, herritar guztiei erakutsi nahi dizkie panel hauek, Beasaingo San Martin plazan jarrita. Mahai eta panel informatibo hauetan, bakea eta biolentziari buruzko informazioa, munduko gatazka lekuak, mapak, argazkiak, azken 10 urteetan Euskal Herrian gertatu diren ekintza puntualak, bakea lortzeko eta giza eskubideak bermatzeko lan egin duten hainbat pertsonen berri emango da besteak beste. Egun osoan egongo dira ikusgai. Ondoren, iluntzeko 8.00etan, bukaerako ekitaldia egingo dute. Bertsolariak eta abeslariak izango dira. Usoak ere askatuko dituzte eta minutuko isilaldia ere egingo dute.

Egun honen lema 'Bakea da bidea' izango da. Gure eskuetan taldekoek adierazi digutenez, "bakea bide bakarra da Euskadiko gatazka konpontzeko".

Era berean, bihar, urtarrilak 31, Bilbon 'Pausoz pauso, avanzamos hacia la paz' lelopean egingo den manifestaziora joateko deia egin dute eta bertara joateko autobusak antolatu dituzte.

Zaldúa - Irizar

Donostiako Udalak San Sebastian egun bezperan banatzen dituen Hiritarren Merizimenduaren Domina bi goierritarrek jaso zuten, beraien taldeen izenean.

Batetik, Jose Luis Zaldúa beasaindarrak, Gureak-en, izenean jaso zuen. Gurutze Irizar ormaiztegiarrak, berriaz, Saharako Lagunen Elkartearen izenean. Donostiaren alde egin duten lanagatik saritu dituzte.



Zerralan zerrategia inauguratua

Urtarrilaren 17an inauguratu zen Zeraingo Zabalegi industrialdean Zerralan elkarte eta zerrategia. Zerralan elkarte Goimenen (Goierriko Mendi Nekazaritza Elkarte) ekimenez sortu da, eta Idiazabal, Mutiloa, Segura, Zerain, Zegama eta Partzoneriako nekazaritzaren aldeko elkarte da.

5 herrietako 100 bat baserri dira elkarte osatu eta kudeatuko dutenak. Inaugurazio ekitaldian 70en batek hartu zuten parte. Elkarte honetako ohorezko bazkideak Idiazabal, Mutiloa, Segura, Zerain eta Zegamako udalak eta Gipuzkoa eta Arabako Partzoneria dira.

5 helburu ditu elkarteak: baserritarrek bere baso materiala aprobetxatzea zerrategi komertzialak hurrun baitaude; nekazaritzaren kudeaketan baserritarren parte hartze zuzena bultzatu; baserriar eta nekazariak nekazaritzaren iraupena segurtatu eta gazteei bide berrien garapena zabaldu, beraien arteko elkarlaguntza, elkarlana eta koordinazioa bultzatuz; basogintza aprobetxamendu eta hobekuntzara begira, teknika eta prozedura berrien zabalkuntza eta bultzapena; eta baso berritze arloan dauden teknika berrien zabalkuntzaz, baso ondarea hobetu, hedatu eta indartu.

Inaugurazio ekitaldian Roman Sudupe Gipuzkoako Diputatu Nagusia; Salvador Gorostola, Nekazal Garapenerako zuzendaria; Zeraingo Udaleko agintariak, Zegamako eta Mutiloako alkateak; Idiazabalgo Udaleko nekazal arduraduna, Jesus Mari Insausti; Segurako Udaleko nekazal arduraduna eta Partzoneriako lehendakaria, Xabier Telleria; eta Goimeneko Jose Manuel Zubizarreta izan ziren.

Nisa Goiburu

Ordiziar pintoreak 1990etik 1997ra bitartean egindako koadro, collage eta lan gra-

fikoak ikus daitezke otsailaren 8a arte Donostian, Kutxak Garibai kalean duen aretoan.

GESTORIA BIOK

ASEGUROAK

- ✱ Aholkularitza laborala eta fiskala
- ✱ Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 88 44 00 - 88 12 58

Goierri, 12

ORDIZIA

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoak: 88 57 50 - 88 57 54

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN

Beasaingo Gizarte Ongizateko II. jardunaldia

Gaur, urtarrilak 30, ari dira egiten Beasaingo Udaleko Gizarte Ongizate sailak antolatutako II. jardunaldia. Aurten goan 'Pobreziaren aurkako planaren erabiltzaileak eta etxebizitza-arazoa' du hizpide. Jardunaldi hauek izaera monografikoa dute eta politikari eta teknikarien artean gaiari buruzko hausnarketa egitea dute helburu.

Pobreziaren aurkako plana eta etxebizitza-arazoa, eta etxebizitza bat lortzen lagunduko duten jarduerak eta neurriak jorratuko dira. Hurrengo alean izango dugu berri zehatzagoa.

Jon Aizpurua

Santurtziko Udalak eta AEK euskaltegiak antolatutako 'Olentzerorentzako lehen gutun lehiaketa' Jon Aizpurua ataundarrak irabazi du. Olentzerori lagun berri bat eskatu zion Jonek, aurretik zituen 3 lagunak galdu egin dituelako. Lagunik bidaltzerik ez balu, Olentzero bera etortzeko eskatuz idatzi zuen eskutitza.

Autobusa 2. Sagardotegi egunerako

AEK-k Astigarragan antolatutako duen 2. Sagardotegi egunera joateko autobusa antolatutako da. Otsailaren 14an izango da bazkaria, eta ondoren arratsaldeko 6.00etatik aurrera, artisau erakus-

keta, trikitilariak, eta Txatunaga Benbe, Etzakit, Anje Duhalde eta Akelarre musika taldeen kontzertua izango da. Autobusaren eta bazkariaren kostua, 3.500 pezetakoa izango da. Informazio gehiago Goierriko AEK-ko euskaltegietan duzue.



Osasunkume kanpainarako kantua grabatu dute Beasaingo Ikastolako ikasleek

Osasunkume, Euskal Herriko eskola eta ikastoletan umeei osasuntsu bizitzen erakusten dien egitaraua da. 'Osasunkume, guru misina' izeneko kantua izango da aurrerantzean bere irudia lantzeko erabiliko den abestia. Kantu horren musika Izaro Garmendia zaldibitarrena da. Hitzak Tere Irastorzarenak, eta Andramendi, Beasaingo Ikastolako 5. eta 6. mailako ikasle zenbaitek hartu du parte grabaketan. Hitzak Rap modura errezipitatu dituzte Nagore Zaton, Maialen Izagirre, Aritzaga Arbizu eta Eneritz Dorronsoro ikasleek, Itziar Flores Haur Hezkuntzako irakaslearekin batera. Rapen erritmoa eta euskarazko azentua uztartzea izan da lanik handiena. Aurrerantzean Euskal Herriko ikasetzetara guztietan ikasiko dute.

Gipuzkoako kros txapelketa

Urtarrilaren 18an jokatu zen Ezkio-Itsason Gipuzkoako kros txapelketa. Emakumezkoetan, Amaia Insausti olaberriarra 3.a izan zen.

Gizonezkoetan, Santi Gonzalez beasaindarrak 5. egin zuen.

Errealak - Beasain

Otsailaren 5ean jokatu du Beasain futbol taldeak, Donostiako Errealaren aurkako adiskidantza partidua, Loinatz futbol-zelaian, arratsaldeko 6.00etan.

Agirre-Mujika txapelketa

Urtarrilaren 24an Azpeitian jokatu zen III. Probintzia mailako eskuz binakako Ilunpe Pelota txapelketa irabazi zuen Koldo Agirre eta Julen Mujikak osatutako bikote beasaindarrak, alebin mailan. Portu-Orena usurbildarrei 18-15 irabazi zien finalean.

Goierriko bola txapelketa

Lepazpian hasiko da asteburuan, Goierriko bola txapelketa. Goierriko bolatoki guztietan jokatu da txapelketa, finala jokatu aurretik. Iaz Gilberto Juaristi legezpiarrak irabazi zuen.

2. MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK



IKASTAROAK	MATRIKULA EPEA	MAILAK
2, 3, 4 eta 5 ordu goizez, arratsaldez eta gaez	Otsailaren 13 arte	Euskalduntze Alfabetatze Hobekuntza EGA

INFORMAZIO GEHIAGO

ORDIZIA: Santa Ana Ikastetxea ☎ 88 91 74

BEASAIN: Kale Nagusia, 5 - 3. ☎ 88 93 40

LAZKAO: Elozegi, 16 - 2. ☎ 88 91 74

Udalak ikasleei matrikula subentzionatuko die.

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a

☎ 88 17 00 - 88 17 04

BEASAIN

ANA MARI ASEGINOLAZA IDIAZABALDARRA, GOENKALEKO EDURNE:

"Denok gordeta daukagun ume izate hori ateratzeko balio du bikoizketak"

Idiazabalgo Zelaa baserriko Ana Mari Aseginolaza Euskal Telebista sortu zenetik dabil pelikulatako eta marrazki bizidunetako aktoreei eta pertsonaiei ahotsa jartzen. Antzerkian ere egin du lanik. Eta gaur, bikoizketa lanarekin batera, Goenkaleko Edurneren papera egiten du.



Donostian bizi da Ana Mari, baina astebukaerero normalean Idiazabala etortzen da, "nire sustraiak hangoak dira eta".

Idiazabalgo antzerki taldean eman zituen Ana Mari lehen urratsak aktore bezala. Neska koskorretan, aingerutxo jantzita egin zuen bere lehen antzezlan. 18-19 urte zituela, orduan sortzen ari ziren Ikastolen alde dirua biltzeko, antzezlan prestatu eta herriz-herriz ibili ziren.

Garai hura bukatu, Atauna ezkondu eta bi seme-alaba izan zituen. Seme-alabak koskortu eta Ikastolara joaten hasi zirenean, zuen denbora librean bete nahian, Euskal Telebistak antolatutako zituen bikoizketa ikastaroetara joan ziren Ana Mari eta bere lehengusua. "Bikoizketaren mundua zer zen arrasatorik ez neukan, aldizkari

batean irakurria nuena bakarrik. Ikastaroa eginez, Ataundik Donostiara egunero joan-etorritz ibili nintzen. Baina bete egiten ninduen. Bikoizketarena beste amets bat bezala zen". Bikoizketa ikastaroarekin batera, antzerki ikastaroren bat ere egin zuen.

'Hogei zentabotan'

Eresoinka bikoizketa etxerentzat egin izan du lan Ana Mari. Ondo gogoratzen du idiazabalarrak bikoiztu zuen lehenengo pertsonaia. "Bikoizketan lan-neurri bakoitzari 'take' deitzen zaio. Lerro bat eduki dezake, edo bost. Ni kasu hartan emakumea nintzen eta mutiko beltz batek galdetzen zidan txakur-beroak zenbatean neuzkan. Nik 'hogei zentabotan' erantzun behar nion, hori zen 'take'-a. 'Hogei zentabotan' esan eta berriaz ere Atauna itzuli nintzen. Handik piska batera telefonoz deitu zidaten 'hogei zentabotan' esaldia berriro grabatu behar nuela, borratu egin zela eta. Hiru aldiz joan behar izan nuen Donostiara 'hogei zentabotan' esatera".

Beti pertsona helduak bikoizten ditu. "Nik ez dut ahots partikular eta dotore horietakorik. 40 urtetik gorako emakumeak, amona xaharrak eta marrazki bizidunetan sorginenak egokitzten zaizkit beti. Ez dakit

sorgin xamarra naizen edo sorginarena egiteko balio dudan. Hasiera hartan lan pilo zegoen. Dallaseko JR-ren amarena egin nuen. Gaur egun batez ere bikoizketa marrazki bizidunetan, haurrentzako egiten da", argitu du Ana Mari.

Oso gustura sentitzen da bikoizketa lanarekin. "Bikoizketan pertsonaia ezberdinak egiteko aukera izaten da, egokitu egin behar da pertsonai bakoitzera. Denok gordeta daukagun ume izate hori, jolas egite hori, ateratzeko aukera ematen du lan honek. Batzutan jolas bat bezala da".

Antzerkian

Ustekabeen sortu zitzaion Ana Mari Aseginolazari antzerkian lan egiteko aukera. "Ustekabeen Maskarada taldetik 'Ernesto izatearen garrantzia' antzezteko aukera etorri zitzaidan. Gauza berri guztiek apuro handia ematen didate eta ezezkia emanez gero damutu egiten naiz. Garbo handiko emakumearen papera egiten nuen. Emanaldi bakoitzean dar-darka egoten nintzen. Ahotsarekin edozein pertsonaia egiteko beldurrik ez dut. Baina antzerkian jendea ikusi egiten da, butakan eserita".

KLIK
estankoa
festa zoriontsuak
opa dizkizue

Nagusia, 20

IDIAZABAL



MUJIKA
frutak - barazkiak

☎ 18 72 20 (biltegia)
☎ 18 75 70 (etxea)

Plaza Nagusia, 6
IDIAZABAL

Aurrera begira, epe laburrean behintzat, antzerkian beste proiekturik ez du. "Patxadan ere bizi nahi dut. Goenkalerekin eta bikoizketarekin egun guztiak okupatuak ditut eta lasai bizi nahi dut. Astebukaeretan antzerki obrak ikustea gusatzzen zait, hori bai".

Trago txikiagoak

Duela gutxira arte Ana Mariren ahotsa oso ezaguna egin bazaigu ere, orain, ia egunero telebistako pantailan izaten dugu, Edurne izenarekin. Edurnerekin zer moduz moldatzen ote den galdetu diogu. "Batzutan ados egoten naiz berarekin, beste batzuetan ez hainbeste. Karaktere fuertea xamarrekoa naiz eta Edurne Goenkalek sartu zenean pertsona gogorraren papera betetzen zuen. Baina herri-tarren esamesengatik edaten hasi zen". Edanaren auzi horrekin nahikoa zeresan jarri omen du. "Edurne telebistan lehenengo aldiz edaten hasi zenean, Beasainen mozkorra deitu ninduten. Parregurea eman zidan. Lagun batek esan zidan, pertsona batek esan ziola, Santo Tomaseta kan-



lean ikusi ninduela eta orduan ere edaten ari zela. Orain badaezpada tabernetan trago txikiak egiten ditut. Badirudi jendea sartzen dela Goenkalek".

Giro ezin hobea dute Goenkalek. "Pentsa, elkarriketa hau bukatutakoan Hortentsirekin noa paseatzera, nahiz eta gaizki esaka aritu... Badaezpada kontu gutxi esango dizkiot", dio parrezka.

Gidoia ikasten ohitu egiten omen da, "hori ez da niretzat arazoa izaten. Denbora hain gutxian norberak daukan guztia ezin du eman. Bikoizketan bezalaxe gertatzen da. Egutero programazioa egiten dute eta programazio hori betetzeko epe bat dago. Denbora jux-

Axari antzerki taldea

Beste herritar asko bezala herrian hasi zen antzerkia egiten Ana Mari Aseginolaza. Izan ere antzerkirako zaletasun handia izan da Idiazabalen, eta herritar asko aritu da antzezlanak antolatu, prestatu eta antzeztzen. Antzerkirako zaletasuna aspalditik datorren arren, 1950eko hamarkadan indartu egin zen. Parrokiaren inguruko taldeak hasi ziren antzezlanak prestatzen. Antonio Jauregi apaizak zuzentzen zituen taldeak eta bikario etxean zegoen aretoan biltzen ziren emankizunak egiteko. Lekua txikia zen eta herritar guztiek antzezlanak ikusi ahal izateko hirutan egiten zuten antzerki bera.

Parrokiako aretoa txiki geratu zen, eta Guraso Elkartek egindakoa erabiltzen hasi ziren orduan. Zuzendari aldaketa ere izan zen, Antonio Etxeberria hasi zen zuzendari lanak betetzen. Taldea sendotzen joan zen eta Axari taldea izena hartuta lanari ekin zioten.

Ordurarte herrira mugatutako emankizunak, Goierriko beste herrietara eramane zituzten. Goierriko antzokietan arrakasta izanda, Tolosa aldera ere jo zuen Axari taldeak, Pazkoa bigarren batean Tolosako Iparragirre antzokian egin zuten emanaldia. Leku gehiagotatik ere iritsi ziren eskakizunak eta haiei erantzunez joan ziren Axari taldekoak, Deba, Zumaia, Araoz, Bergara, Oñati eta Urretxura.

Denbora horretan antzezlan asko prestatu eta antzeztu zituen taldeak, batek baino gehiagok gogoan izango dituzte besteak beste: Eundukat, El medico a palos, El Buen Samaritano, El fotografo Iziartxo, Melitonen bi senarrak, Egiatzko argia, Larratzean sua, Itzulera eta beste hainbat lan.

Xabier Urteaga

tua dugu gauzak egiteko. Arazorik handiena denbora faltarena da. Askotan pena ematen du berriz ere eginez gero, hobeto egingo nuela

uste izaten baitut. Baina ezinezkoa da, keja horiek entzuten hasiko balira, programazioa ez litzateke inoiz beteko".



MUJIKA

jatetxea

Kogote erreak,
txuletak

Nagusia, 42 ☎ 18 73 19
IDIAZABAL

IRIONDO
ELEKTRAGAILUAK

Herritarro festa onak opa dizkizuegu

Nagusia, 5 ☎ 18 71 65
IDIAZABAL

IONEKA

OINETAKOAK
KIROL JANTZIAK

Bikuña, 1 ☎ 18 75 27
IDIAZABAL

JERONIMO-ENEA

Taberna
eta
gasolina surtidorea

☎ 18 74 96

IDIAZABAL

San Blas jaia Idiazabal



Arg.: Gilermo Urrestarazu

Urtarrilak 30, ostirala:

19:30etan: Herriko Futbito txapelketa finala.

20:00etan: Kanpai Buel-takoak eta txistularien kalejira. Txupinazoa. Buruhandiak ere irtengo dira.

20:30etan: Axaria plaza-ra jaitsiko da, eta futbitoko finala irabazi dutenek, jaie-tako Pregoia irakurriko die-

te bertan bildutako herritarrei, Udaletxeko balkoitik.

23:00etatik 3:00etara: Drindots taldea, plazan.

Urtarrilak 31, larunbata:

10:00etatik eguerdirarte: Plater tiraketako entrenamentua Goardia aldean.

15:00etan: Herriko plater hausketa lehiaketa Goardia aldean.

16:00etan: San Blas txirrindu proba haundia.

18:00etan: Herriko Pala txapelketako finala Igarondo pilotalekuan.

18:30etan: Neska arteko futbito txapelketa Haundia.

23:00etan: Helduen dantborrada.

24:30etatik 4:30etara: Joselu Anaiak taldea.

Otsailak 1, igandea:

9:00etatik 13:00etara: Probintzi mailako bola txapelketa.

10:00etatik aurrera: Idiazabalgo Lehenengo Trial saria.

11:30etan: Beti Argi musika bandaren, kalejira.

13:00etan: Plazan, Beti Argi musika bandaren kontzertua.

17:00etan: Umeen dantborrada.

19:00etan: Sokatira ikuskizuna. Partaideak: Amezketa, Gaztelu, Errezil eta Orendain.

20:00etatik 3:00etara: Dantzaldia, Izadi taldeak alaituta.

Otsailak 2, asteartea: Kandelari eguna.

Umeen eguna:

11:00etatik 17:00ak bitartean: Haurrentzako gaztelu puzgarriak eta jolas parkea, Zelaako kiroldegian.

18:00etan: Igarondo pilotalekuan, Takolo, Pirrutz eta Porrotx pailazoak.

18:30etan: Zelaako kiroldegian, Idiazabalgo I. mahai tenis txapelketa.

19:30etan: Meza eta



ZEPAI
JATETXEA

☎ 18 71 98
IDIAZABAL

ODEI
Taberna

Kafe-krema espezialak

Nagusia, 29 ☎ 18 75 15
IDIAZABAL

PERIKO
ARRANDEGIA

Kale Nagusia, 16
☎ 18 71 13
IDIAZABAL



GAZTELU
Jatetxea

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

☎ 18 71 93
IDIAZABAL

IZPAR

Eskolako gaiak,
goxokiak, prentsa.

Jai zoriontsuak!

☎ 18 72 19 IDIAZABAL

XUME TABERNAk

Festa onak opa dizkizue

Nagusia, 5

IDIAZABAL

☎ 18 70 35



Kandela Bedeinkazioa.

20:00etan: Buruhandiak.

20:00etatik 3:00ak arte: Joseba Iparragirrenen

taldeak gaua alaituko du.

Otsailak 3, asteartea:
San Blas eguna.

Koadrilen eguna:

10:00etan: Txistularien kalejira.

11:00etan: Parrokiko koruak abestutua Meza Nagusia. Ondoren Apaiz-etxean hamaiketakoa emango da.

Eguerdian: Patatak errioxar erara prestatzen hasiko dira plazan.

Eguerdi partean: Poteo dotorea herriko tabernetan.

14:00etan: Eguerdian

prestatutako Errioxa erako patatak jango dira. 'Alma Navarra' joteroek kantaldia eskainiko dute.

17:00etan: Tirri Tarra fanfarrearen ikuskizuna herriko plazan.

20:00etatik 3:00ak arte: Kiñu taldeak alaituko du gaua.

Otsailak 4, asteazkena:
San Blas txiki eguna.
Ezkonduen eguna:

10:00etan: Txistularien kalejira.

11:30etan: Ohizko hamaiketakoa herriko plazan.

12:00etan: Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsolarien saioa plazan. Bazkalondoan Mujika jatetxean jarraituko dute saioa.

12:30etan: Herriko dantza taldearen dantzaldia plazan.

18:00etan: Taloa eta sargdoa plazan.

20:00etan: Buruhandiak plazan.

19:30etatik 2:30ak arte: Joselu Anaiak taldea.

24:00etan: Axaria datorren urterarte agurtuko dugu.



BUENOS AIRES
JATETXEA-k

jai zoriontsuak opa dizkizue!

ETXEGARATE GAINA
☎ 18 70 82
IDIAZABAL

BATZOKI
TABERNA

Kalamaretan espezialdua

Nagusia, 24 ☎ 18 71 25
IDIAZABAL

ARANTZAZU
arrandegia

☎ 18 70 68 - 18 76 99
K. Nagusia, 20 **IDIAZABAL**

KONTXI HARATEGIA
MIKEL JANARIDENDA

Festa onak pasa!

Nagusia, 14 ☎ 18 70 78 IDIAZABAL



IDIAZABALGO
UDALA

AGURRA

San Blas zaindariaren ohoretan, gure herriak hain mereziak dituen festak gainean ditugu iadanik.

Aurreko urteetan bezalaxe, Festa Batzordeak bere ahalegin guztiak egin ditu dagoeneko, programa zabal honetan kirola, musika, zein kultura aldetik ospakizun ugari antolatu, eta herritarrok nahiz kanpotarrek goza ditzagun.

Nere asmorik onenarekin, gure zaindaria den San Blas izenean, festa hauek anaiartean eta alaitasunean ospa ditzagula opa dizuet.

Alkateak

IDIAZABAL

Gaur hasiko dira Sanblas jaia

1998 Sanblasei gaur eman-
go zaie hasiera ofiziala. Au-
rreko asteburuan ekitaldiren
bat izan zen arren gaur izan-
go da Axariaren jeitsiera eta
festen pregoia gaur irakurri-
ko da. Aurten estreinakoz
pregoia herriko futbito txap-
elketako irabazleek iraku-
rriko dute udaletxeko bal-
koiatik. Gaur bertan jokatu-
ko den futbito finalean ga-
raile ateratzen den taldeak
emango die hasiera festei.

Bost egun iraungo dute
aurtengo Sanblasek. Egita-
rauan ohikoak diren ekital-
diak daude bilduta, bada or-
dea berrikuntza pare bat.

Trial txapelketa

Gipuzkoako Trial Federa-
zioak antolatuta estreinekoz
Idiazabalgo trial saria joka-
tuko da aurtengo jaietan.
Herriar bat aritu da federa-
zioarekin batera antolaketa
lanetan.

Herri Eskola ondoan
izango du trial sari honek ir-
teera eta amaiera puntua.
Ibilbidea berriz herriaren
kanpoko aldetik izango da.
(Igandean, 10.00etan)

Patatak Errioxar erara

Aurten ez da paella erral-
doia egingo, horren ordez,
urtero-urtero lan horretan
aritzen den taldeak patatak
errioxar erara prestatzea
erabaki du. Festa Batzorde-
tik jakinarazi denez antola-
tzaileek beraiek egindako
proposamenari jarraituz
egin da aldaketa. Antola-
tzaileen esanetan urte asko
daramate paella egiten, eta
denbora gutxian bi aldiz
egin dute paella herrian, eta
aurten frogatzeko bada ere
aldatu egin nahi dute.

Patatak, paella prestatzen
zen ontzi berean egingo di-
ra eta prozesua ere antzekoa
izango da. Patatak jan nahi
dituenak, kantitate txikia
bada ere, zerbait ordaindu
egin beharko du Kultur As-
tean egin zen bezala. Paella
banatzerakoan azken urtee-
tan sortzen ziren gorabehe-
rei aurre egin nahi die ho-
rrela antolatzaileek. (Aste-
arte, San Blas eguna,
eguerdian).

Xabier Urteaga



Helduen krosa. Hotza izan nagusi XVIII. edizioan. Giroa, berriz, beroa. Arg.: Lourdes Urrestarazu.

XVII. Herri Krosa

Aurreko igandean festei hasiera emateko krosaren
XVIII.edizioa egin zen herrian. Hauek irabazleen izenak.

Neska Benjaminak: Almudena Ngema. Igo herritarra:
Maialen Aldanondo. **Mutil Benjaminak:** Ander
Viguri. Igo herritarra: Asier Garai.

Neska Alebinak: Amaia Azurmendi. Igo herritarra: Leire
Urteaga. **Mutil Alebinak:** Eneko Agirrezabal. Igo
herritarra: Jon Urteaga.

Neska Infantilak: Amaia Arbillaga. Igo herritarra: Oihane
Elio. **Mutil Infantilak:** Ladislao Unanue. Igo he-
rritarra Eñaut Alustiza.

Neska Kadeteak: Alazne Ruiz. Igo herritarra: Uxune Alus-
tiza. **Mutil Kadeteak:** Fernando Nogales. Igo he-
rritarra: Arkaitz Bersategi.

Emakume Helduak: Sara Rodriguez. Igo herritarra: Aloña
Galaraga. **Gizon Helduak:** Manu Hurtado. Igo
herritarra: Ramon Aldasoro.

Emakume Beteranoak: Mari Jose Gil. **Gizon Beterano-
ak:** Angel Turrillas. Herriko Igoa: Martin Lizarazu

AXARI
jantzi denda

Nagusia, 6 ☎ 18 72 84
IDIAZABAL

FRONTOIKO
EDARITEGIA

Festa onak pasa!

Mateo Mujika Kalea
☎ 18 70 74 **IDIAZABAL**

MUJIKA
HARATEGIA

Odolki eta txorizoetan berezitasuna

☎ 18 71 82
Kale nagusia, 2 **IDIAZABAL**



Aurten ere iaz bezala Tolosan irabazle!!

ALAI
Jatetxea



*Jai
zoriontsuak!*

Etxegarate gaina
☎ 18 76 55
IDIAZABAL

LAZKAO Preferente mailako futbol taldea bikain



Urte mordoxka bat pasatu da jadanik, Lazkao K.E.-a preferente mailara igo zenetik, eta egia esan, urte onak gehiago izan dituzte kaxkarak baino. Aurtengoak, ordea, marka guztiak hautsi ditu. Lehenengo itzulia, lazkaotarrek bigarren postuan amaitu dute 39 punturekin, Eibar taldea izan da lazkaotarren aurretik amaitu duen bakarra.

Arrakasta honen zergatia aztertzerakoan, Juan Ignazio Etxeberria eta Iñaki Satrutegi entrenatzaileen lana bereizi behar da. Beraiek dira taldearen ardura dararmatenak eta beraiengana jo genuen talde honen ezaugarriak jakiteko asmotan.

Beraien esanetan haserako kontuak ez omen ziren oraingoak bezain pozgarriak, jokalaria oso gutxi-ekin aurkitzen ziren eta aurreko urteko jokalaria batzuk gainera taldea utzi zuten. Horregatik jokalaria gazteen bila ibili ziren taldea osatu nahian, taldea osatzeko as-

moz etorri ziren hain zuzen, Luis Lasa eta Jon Jauregi tolosarrak. Luis Lasa tolosarra izan da gainera Lazkaoko taldearen golegile honena 12 golekin. Baina talde txikiei gertatzen zaiena gertatu zaio Lazkaokoari ere, hau da, taldeko jokalaria onenetakoa izan den tolosar gazte hau Beasaingo taldeak fitxatu duela bigarren itzulirako.

Talde oso gaztea da lazkaotarrena eta jokalaria eskasia dela eta, noizean behin gazte mailako bi jokalarik jokatu izan dute. Zailtasun guzti hauek medio, haserako helburua ahalik eta larritasun gutxiena pasatzea bazen ere, denborak erakutsi digu zertarako gai diren gazte hauek. Ilusioa eta gogoia sobran dutela esan beharrik ez dago eta dudarik ez daukagu urte amaieran ere gutxienez postu berbera mantenduko dutela.

Taldeko bi entrenatzaileek esan digute benetan eskertuko luketela partiduetan



Amebi sagardotegia martxan

Aukera ezin hobea daukagu lazkaotarrok joan den larunbateretik aurrera jan-edan bikain bat egiteko Amebi baserrian irekitako sagardotegi berrian. Sagardotegi berri honetan 160ren bat laguntzako lekua dago, eta astegunetan afaltzeko aukera bikaina izango da bertan, baita asteburuetan bazkaldu eta afaltzeko ere, gainera urte guztian irekita egongo da.

ra jende gehiago joango baltiz, oraingoz jende gutxi xamar joaten baita.

Lanak amaitzeko epea Sanprointzio bezpera da.

Frontoi zaharreko lanak hasita

Lazkaoko plazatik pasa zeratenok konturatuko zineten jadanik, plazako frontoian hasi direla obretan. Aurretik, GOIERRITARRAREN beste ale batean, adierazi genizuen bezala, frontoiko obrak plazan egin beharreko beste hainbaten lehenengo pausoa dira. Lehenengo pauso honetan frontoiaren frontisa bost metro atzerago botako dute eta gainera frontoia estali egingo dute egurrezko estalki batekin.

Santaeskea

Aurten ere, azken urteetako ohiturari eutsiz, eskean airtzeko asmoa du herriko lagun talde batek. Horretarako otsailak 4 asteartea goizeko 9.00 etan Lazkaoko plazan bilduko dira, soinu-jole eta bertsolarien laguntzaz Lazkaomendira igo eta bertan eskean airtzeko. Bazkalostean, berriz, herriko bazterrak girotuko dituzte. Nahi duenak egun pasa ederra egiteko aukera ona dauka asteartean.


Urko Irastorza
Koldo Urrestarazu

JOAKIN ALDANONDO BULKANIZATUAK

Gurpil lanak, alineazioa
filtroak, olioak, engrasea
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak

Errota Poligonoa (IDIAZABALgo sarreran)

18 72 57



RENAULT
AGENTZIA

**LAZKAO
GARAJEA**

Senpere Industrialdea
88 24 42 - 88 89 01
Faxa: 88 89 01
LAZKAO

ATAUN

Pleno aretoko koadroari buruz



Iñaki Imazek egin du Miguel Imazi buruzko azterketa.

Udaletxeko pleno edo batzar aretoan inoiz izan garenoi ia ziur burutik pasatu zaigula ondorengo galdera hau: "nor ote da koadroko gizaseme hori?". Batzuk erantzun bila hasiko ginen berahala (ondokoari galde-tuz edo), beste batzuk, berri-
riz, jakiteko gogoarekin geratuko ginen... Jakinmin hori asetzeko, hain justu, burutu berri du Iñaki Imaz herritarrak erretratuko gizon "misterioso" edo ezezagun horri buruzko ikerketa lan bat, Ataungo Udalak antolatutako Ataun Aztergai bekari esker. Lan horrekin (bekaren bidez burututako besteekin bezala) liburuskat

bat argitaratzeko asmoa du Udalak (noiz izango den oraindik esaterik ez dagoen arren).

Azterketa historiko-biografiko horretan esandakoaren arabera dakigu, hain zuzen ere, pleno aretoko erretratuan agertzen den gizasemea Migel Imaz Apalategi (1873-1925) ataundar ospetsua dela; ospetsua bai, baina Donostian bertan ezagunagoa bere jaioterrian baino. Izan ere, Gipuzkoako hiriburuan bizi izan baitzen urte askotan eta hantxe egin baitzuten bere lanik garrantzitsuenak.

Migel Imaz 1890. urte inguruan joan zen Donostiara hargin moduan aritzera. Egunez lan eta ilunabarrean 'Escuela de Artes y Oficios' izenekoan industria eta eraikuntza arteetako ikasketak egiten zituen.

1900-1905 bitartean bere kontura hasi zen lanean kontratista bezala (lanbide berdineko beste lagun batzuekin); 1911. urteko urtarriaren 24ean elkarte bat osatu zuten, "Miguel Imaz y Compañía".

Donostian lan garrantzitsu asko egin zuen, fama handiko obretan parte hartu zuelarik. Hara nola: San Bartolome muinoaren ebaketa edo mozketak, Pasealeku berriko (Paseo Nuevo edo "Príncipe de Asturias") ensantxe edo zabaltzea, Maria Cristina Hoteleko eta Victoria Eugenia antzokiko eraikuntza lanak, San Martin kaleko Justizia jauregi-koak, Zurriolako zubia, Kursaal Kasinoa...

Ataunen ere aritu izan zen, neurri apalagoan izan arren. Andreseneako zubian, besteak beste. Gainera, Erremedioko bainuetxe-ko ur sendagarriak herrira jaisteko eta beheran bainu-

etxe berri bat eraikitze-ko proposamena ere egin zion udalari. Baina proposamen hori asmo hutsean gelditu zen.

Bere lan horiei guztiei esker, ekimen edo iniziatiba handiko enpresa gizon langilearen ospea irabazi zuen, batez ere, Donostian. Horregatik, hil ondorengo omenaldi gisa Groseko kale bati bere izena eman zioten (oraindik ere, jakina, bertan da Migel Imaz kalea). Ataundarrok, berri-
z, Elias Salaverría pintore famatuak margotutako erretratua daukagu udaletxeko pleno aretoan, herritar honi diogun estimorearen lekuko.

Josune Aldabe

Mendi irteera

Mendiko irteera berri bat proposatzen digu Ataungo Kirol Elkartek: oraingoan Alleko da helmuga eta buzoia ipintzea helburua (ondo pasatzeaz gain, noski). "Ataun ezagutu" kanpainaren barruan egiten den 36. ibilbidea da honako hau: Lizarrustitik abiatuta, Sukaldezar, bordak, Beorresi, Alleko, Iraio, Baiarrate, Malkorburuko leizea, Maiziegierreka, Akerreta eta Lizarrustin bukatu. Duela 25 urte jarri zen buzoia eta aurtan berriro jarriko da. Horregatik, materiala igotzeko motxilak eramatea komeni da. Elkargunea San Martingo plazan izango da, otsailak 8an (igandean), goizeko 8.30etan.




Nafarroa Etorbidea, 9
88 94 82
BEASAIN

LEIAR
KRISTALDEGIA

ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g 88 88 24
BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea 88 60 70
BEASAIN



Zaldizurreta kalea
88 45 06
BEASAIN



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak

Barandiaran
ZERAMIKAK

88 79 72
Senpere, 7
BEASAIN

BEASAIN

Bareak Dendariak elkartearen martxan



Duela urte batzuk ezaguna zen guztiontzat, Bareak, herriko dendarien elkarte. Halere, ziuurrik bere pista galdua zenuten gehienok, gutxinaka desagertzen joan baitzen. Iazko urtean, eta hutsune hori betetzeko asmoz elkarte berri bat sortu zen: Bareak Dendariak.

Lehenengo Bareak Elkarte 70. hamarkadan sortu zen eta probintziako lehen elkarte komertzialetariko bat izan zen. Garairik onenean 100 dendatik gora bildu zituen elkarteak, zozketa ezagunak, formazio ikastaroak eta beste hainbat ekintza burutuz. Garai hartan Bareak dendari elkarte eta izen bereko elkarte gastronomikoa biak bat ziren, bietako bazkidea izan beharra zegoen nahitanahiez.

Dena den, komertzial atala indarra galtzen joan zen 80. hamarkada amaieran. Gutxinaka hiltzen joan zen, ia erabat desagertu arte. Ondorioz, herriko dendak inolako elkarerik gabe geratu ziren, bakoitza bere-kasa.

Egoera honek iaz arte iraun du. Bakar batzuk berriro elkartearen beharra ikusi zuten, bilera batzuk antolatu ziren, eta aldeko iritzia gehiago agertu ziren. Honen ondorioz, ia urtebete bada Bareak Dendariak elkarte sortu zela, betiko helburu nagusiarekin: Beasaingo komertzioa bultzatzea. Lehen pausotan dira, eta oraingo 32 bazkide biltzen dituzte. Gainera desberdintasun batekin, orain-

goan elkarte gastronomikotik bereizten dira, dendari elkarteko bazkide izan nahi duenak ez du zertan bietako partaide izan beharrik.

Publikoari begira lehen ekintzak, pasa diren Eguberrietan burutu zituzten. Herri guztiko komertzioekin batera kale animaziorako ekintzak burutu zituzten, eta zozketa berezi bat ere egin zuten. Bidebatez gogoratu zenbaki saridunaren jabea oraindik ez dela agertu, beraz boletorik baduzue begiratu ea 79.111 zenbaki hori zeuena duzun.

Bestalde, aurrera begira ideia ugari dituzte esku artean. Oraindik erabat finkatu gabeak, eta gure bitartez

publiko egin nahi ez dituztenak, aurrez ere gertatu izan omen zaielako, ezagutarazi, eta beste norbaitek bere egitea.

Komertzio txikiaren etorkizunari buruz ondorengo ikuspegia dute: "Jendearen erosketa ohiturak asko aldatzen ari dira, supermerkatu eta hedadura handiak dena jaten ari dira. Eta printzipioz komertzio txikia galbidean da; Britainia Handian eta Frantzia hala gertatu da behintzat. Gu, ahal den neurrian, hori saihesten edo atzeratzen saiatu behar gara. Gure alde jendearekiko atentzioa dugu, askoz zerbitzu gertuago eta hobea eskaintzen dugu. Baina honetaz aparte guztiz beharrezkoa ikusten dugu dendariak elkarteak, bakarka aurrera egitea oso

zaila baita", diote elkarte-koek.

Eta amaitzeko gonbitea luzatu nahi diete herriko beste komertzioei: "Beasain Dendariak elkartearen mota guztietako komertzioei irekita dago. Jende aurrean lan egiten duen edonorri, janari denda eta taberna bezalakoak barne. Ondorioz, bazkide egiteko gonbitea luzatzen diegu guztiei; izan ere, zenbat eta gehiago elkartu, indar gehiago egiteko aukera izango baitugu".

Odol ateraldia

Datorren asteazkenean, otsailak 4, urteko bigarren odol-ateraldia egingo da Odol Emaileen elkarteko egoitzan, Urbi Etxean. Bidebatez esan, beheko solairuko lokal berria prest dutela dagoeneko, eta erabiltzen hasiak direla inaugurazio ofiziala oraindik egin ez den arren. Beraz, ohiko emaileek eta animatzen diren berriek erasotasun gehiago izango dute emateko orduan.

Asmube

Otsailerako ikastaro hauek antolatu ditu herriko ema-kume taldeak: otsailaren 2an, astelehenetan, 16:00-etatik aurrera 'Barne-aurkikuntza' eta 'Informatika: Word 97' ikastaroak hasiko dira; 7an, 'Erizain Lanposturako Osakidetza' Lehiaketa-Oposizioarako prestakuntza' ikastaroa hasiko da (45 orduko). Izen emateak, Asmuben eta 88 52 92 (Esther) telefonoetan egin behar duzue.

Aitor Arrue

Odolki Kofradiaren eguna



Azken urteetako tradizioarekin jarraituz, datorren ostegunean eta Loizoko San Martin eguna dela eta, Beasaingo Odolkaren Kofradiak bere XIII. Biltzar Nagusia ospatuko du.

Goizean goizetik hasita ekitaldi ugari izango da, kofradien desfilea eta Meza Nagusia tarteko. Eguerdiko 12.00etan, Kofradiaren XIII. kapituloaren ospakizuna izango da, eta segidan kofradikide berrien izendapena. Aurten go honetan izendatuko dituzte Ohorezko Kofradikideak Kontxi Telleria, Jesus Mari Rebollar, Real Sociedad C.F. eta Bilboko Udala izango dira.

Eta azkenik, anaidetasun bazkaria egingo da Castillo Hotel jatetxean. Bertara joateko, datorren astelehenerarte eskuragai egongo dira bazkari txartelak, Nagasaki eta Jakobo tabernetan, eta Castillon bertan, 6.500 pezetan. Guzti honekin batera, odolki dastaketa herrikoia ere izango da 18:30etan. Ordu erdi lehenago, Beasain futbol taldeak Donostiako Errealaren aurka jokatu du adiskidantza-zako partidua, Loinatz futbol zelaian.

ZEGAMA

Ohitura den bezala aurtan ere ez da makil hotsik falta-ko Zegama aldean, hortxe izango baitira Aitxuri herri-eskolako haurrak kalez kale Santa Ageda ospatuz. Irteera arratsaldeko 2.30etan izango da eta herri gunean ibiliko dira.

Orkatza abesbatzak ere urteroko Santa Ageda bez-

Herritarrei:

Eskutitz honen bidez adierazi nahi dizuegu Gabonetako oporetan Aitxuri herri-eskolan bi kristal hautsi zituztela. Eskatu nahi dizuegu horrelakorik gehiago ez gertatzea. Asko kostatu zaigu denoi edifizio batean egotea eta, orain lortu dugunean, hori ongi mantentzen saiatu behar dugu. Eskola deno- na denez denok zaindu behar dugu, barruan ikasten dugunok eta kanpoan zaudetenok.

Aitxuri herri-eskolako ikasleak

Otsailak 4, Santa Ageda bezpera

perako irteera egingo du. Irteera iluntzeko 7.00etan izango dute zine ondotik eta aurtan herriko bertsolariak izango dituztela lagun adierazi digute.

Ihauteriak

Ihauteriak ere gerturatzan ari zaizkigunez, Kultur Etxeko Batzor-



deak, Aitxuri herri-eskolak eta Tobera Musika eskolak egun berean ospatzea erabaki dute. Beraz, otsailaren 20an ospatuko da aurtan ihauteri jaia.

Jaiaren barruan urtero bezala afaria eta dantza lehia- keta burutuko da herriko Ki- roldegian. Afaria bakoitzak berea eraman beharko du

baina zenbat mahai eta aulki behar izan- go diren jakiteko as- moz, izen ematea otsailaren 17a arte izango da, Udaletxe- an.

Eskolarteko kirola

Jakina da Aitxuriko ikasleen artan herri-kirolek duten arrakasta. Hori dela eta hortxe izan genuen esko- lako talde bat Ordizian ospa- tu ziren ihardunaldietan.

Pasa den igandean ospatu zen Idiazabalgo herri kro- se- an ere eskolako talde polit batek parte hartu zuen.

Edurne Albizu

ZALDIBIA

Berezko hazkunde tasa negatiboa 1997an

Zaldibiak, 1996ko zentsoa- ren arabera, 1.528 bizilagun zituen. Baina pentsatzeko da azken 2 urteotan beheraka egin duela bizilagun kopu- ruak. Hala dirudi, behintzat, 1997an hil eta jaio diren arte- ko aldea konparatuta.

Hona hemen 1997an zen- du diren zerrenda: Isabel Marcos (Iturralde), Jose Su- kia (Urretagoena), Migel Munduate (Donostia), Migel Mendizabal (Aranguren), Bixente Iruin "Saturdi", Pa- txi Agirre (Agarre-Zaldi- bia), Juan Asurabarrena (Olegi-Berri), Paulo Murua (Iparragirre) Maria Sukia (Antsusieta), Jobita Nazabal (Mamunea), Marina Naza- bal (Kanpoan), Jose Kruz Larrañaga (Beasain), Patxi Tolosa (Elizegi), Jesus Gu- rrutxaga (Gure Ametsa), Mikaela Mendizabal (Alda- buru), Antonio Arruabarre- na (Lazkao), Jose Maria Su- kia (Errekalde), Victoriano

Fernández (Zubimusu), Ai- tor Labaka (Nañarri), Fran- tziiska Etcheberria (Arotxa- nea), Mariana Irastorza (Ur- tesabel-Berri), Ignazio Gala- rraga (Ermentari), Antonio Murua (Gorriñe), Trini Arruabarrena (Eskribau), Jose Mari Eruskin (Albitxu), Lupe Razkin (Aztiriaga), Jo- se Irastorza (Goiko Bikario- etxe), Martzela Korta (Ka- rreranea), Mertxe Azurmen- di (Lazkao), Franziska Ba- randiaran (Konporta), Lo- renzo Sukia (Albitxuberri- Logroño) y María Punzano (Mendiondo).

Egia esateko, zerrendan azaltzen diren guztiak ez zeuden Zaldibian errolda- tuak, baina, kalkuluen ara- bera, 25 edo 26 bai. Gaine- ratikoak kanpoan bizi ziren zaldibitarak dira. Bestalde, litekeena guk hemen ipini ez dugun zalbitarren bat gehia- go hiltzea, batez ere kanpo- an. Oso zaila da datu hori

kontrolatzea, asko eta asko aspaldi atera baitziren herri- tik eta bizi era urruti bizi izan direlarik, ez dugu eza- gutzeko aukerarik kasu as- kotan. Zerrendan norbaiten izena falta baldin bada, seni- deartekoei barkamena eska- tzen diegu.

20 lagun baino gehiago hil badira eta bederatzi ba- karrik jaio, bistan da berez- ko hazkunde tasa negatiboa izan dela. Hauxek dira 1997an Zaldibian sortu di- ren landare berriak: Iñaki Garmendia Soto, Miren Etxabe Arizmendi, Aimar Garmendia Sukia, Ander Azketa Urbizu, Aritz Iruin Mendizabal, Ivan Flores Agirre, Uxue Etcheberria Al- tuna, Ibai Jimenez Gorostizu eta Maddi Erauskin Legor- buru.

Meza Nagusi berezia

Santa Fe Parroki Elkartek, Kandelario Eguna dela eta,

Meza Nagusi berezia presta- tu du datorren iganderako, katekesiko haurrak partaide direla. Meza barruan kande- lak bedeinkatuko dira. Era berean, 'Elizan sartzea' ize- neko zeremonia ere burutu- ko da egun horretan. Besta- lde, munduko umezurtz, gai- xo eta miserian daudenekin solidarizatzeko, jostailuak, sendagaiak eta limosna bil- duko dira.

Santa Ageda eskea

Parroki Elkarteko kideak, iaz bezalaxe, kantari aterako dira otsailaren 4an. Iluntze- ko 7etan herriko plazan bidu eta herriari jira osoa emango diote kantari. Kandelario eguneko Meza Nagusi ondo- renean izango da entsaioa. Azkenik, Parroki Elkartek gosearen kontrako eguna an- tolatu du otsailaren 8rako.

Rufino Iraola

ORDIZIA XXI. Mus txapelketa azkarra ordagoen zain



Mus jokariak zozketaren zain Argi Berri atarian.

Argi Berri Elkartek urtero antolatzen duen mus txapelketa azkarra iristear dago. Berau otsailaren 14an izango da, larunbatean. Ehundik gora bikote espero dira aurreten ere, sariek edozein erakartzeko modukoak bait dira. Bikote irabazleak 150.000 pta. eta txapelak eramango ditu. Bigarrenak 75.000 pta., hirugarrenak 40.000 pta. eta honela 8 lehenengoei saria izango dute. Herriko lehen bikotearentzat bi txuleta izango dira.

Ohiturari jarraiki, 4 erregetara jokatu da 6 hamarreko 3 usteletara. Aipatu eguneko arratsaldeko

4.15etarako izena eman behar da Bustuntza auzoan dagoen Argi Berri Elkartean bertan, bikoteko 4.000 pta. ordainduaz.

XXI. edizioa beteko du txapelketak aurtengoan eta goierritarrez gain inguruko bailaretatik ere jendea inguratzeko espero da. Iaz Legazpia, Azpeitia, Zarautz, Donostia eta Leizatik ere hurbildu zen jendea, azkenean saria Idiazabala joan bazen ere. Juan Mujika eta Jesus Soriak jantzi baizituzten txapelak finalean Roman Elozegi eta Jesus Gurrutxagak osatutako bikotea gailendu eta gero.

Futbol txapelketa

Lehenengo bilera egin ondoren martxan dago jada XIX. Lagunarteko Futbol Txapelketa. Antolaketa lanak aurtengoan Tximista Sagardotegia eta Morapios taldeek eramango dituzte, zozketa egin ondoren horrela egokitu zitzaielako. Guztira 16 taldek eman dute izena. Hauexek: iazko txapelduna den Tximista Sagardotegia, Morapios, E.R. Matxain Ileapaindegia, Orlegi, Usunbilla, Urbitarte Sagardotegia, Txola Taberna, Laostiajode, Badago, Vicuña Sport, Sylum, Irrintzi, Wiskas, Harriketarrak,

Bustunmira eta Peña Azoitea.

Aipatzekoa da orain bi urte txapeldun izan ziren Olano Tabernakoei izena ez emana eta baita Txiki Tabernakoei ere. Hauen kasua aipatzekoa da, izan ere 92. urtetik daramate norgehiagokarik galdu gabe, orduan finalean luzapenean 2-leko emaitzaz galdu zutenetik hain zuzen. Ordutik aurrera arauzko denboran ez dute partidurik galdu eta kanporatzeko modu bakarra penaltien bidez eta golaveragea izan dira.

Aitor Calvillo



San Sebastian egunean danborrada izan zen Jakintza Ikastolan. 2 eta 5 urteko haurrek, Iñaki Hidalgo zuzendari ofizialaren eta danborren laguntzaz, gurasoei erakutsi eta eskaini zitkien danborradako doinuak. Guraso ugari hurbildu zen bertara.

URBITARTE sagardotegia



- Egunero irekita, nahiz eta sagardotegi denboraldia bukatu
- Sagardotegiko menuaz aparte arraina ere egongo da
- Berezitasuna txuleta eta sahieskietan

Erreserba telefonoa: 18 01 19

Ergoiena Auzoa

ATAUN

OSASUN

BELAR ETA DIETETIKA DENDA
NATUROPATA

Eska ezazu eguna eta ordua

Goierri 10 ☎ 88 61 14 ORDIZIA

EROSKI KAFETEGIA

gosari - merienda
eguneroko menua

☎ 88 27 93

ORDIZIA



Etxeke eta sukaldeko altzariak

Poeta Lizardi, 2
TOLOSA
Tfn. 65 29 01

SEGURA

'Herritarrak kontu-kontari' bideo berria

Izenburu hori duela kalera-tuko da Juan Angel Egaña-ren azken bideolana Antonkalene taberna inauguratzen dutenerako. Ordu 1 eta 35'ko iraupena du eta orduerdiko 3 ataletan dago banatua. Etxekoandreak erosketak egiten eta 4 herritar musean Antonkalenen, jubilatuz batzuk tertulian Atsedenen eta Ondarreko Xantiago Goibururen artzai kontuak. Tabernetan eta Jermanenen jarriko dira salgai 1500 pezetan.

Joxe Luix Etxeberria eta Laureano Telleriaren laguntzarekin, beste 5 bideo ditu kaleratuak J. Angel Egaña: 'Segura herria', 'Segurako baserriak I-II', 'Aste Santua', 'San Joan jaiak' eta 'Segurako ermittak'. Pelota eta gabonei buruzkoak kaleratzear daude eta beste 3 proiektu ere badituzte esku artean.

Kirol eskolarra

Tenisa: 2 hilabete inguru iraungo duen tenis ligako 1go partiduan, urtarrilaren 17an, Laiotzeko mutil alebinek 5 partiduak (3 banaka eta 2 binaka) irabazi zizkieten Ordiziako Jakintzakoei. Urtarrilaren 31n, goizean, neska alebinek jokatu duete etxean Jakintzakoen aurka. Mutil alebinek Ordizian jokatu duete Urdanetakoen kontra.

Pelota: mutil infantilek, jokatu du 2 partiduak dararmatzate irabazita eta urtarrilaren 31n Zaldibian jokatu beharko dute.

Atletismoa: urtarrilaren 31n, 1go atletismo ihardunaldia izango dute neska eta mutil alebinek Ordizian.

Futbola

Asteburuko emaitzak:



Santa Ageda eskeak

Otsailaren 4an, Santa Ageda bezperan, 3 talde izango ditugu herrian kantu eskean: **Laiotz Herri Eskolakoak:** 3tik 12 urte bitartekoak irtengo dira aurten 2. aldiz. Ohitura zaharrari eutsi asmoz, baserriar jantzita, 14:30etatik 16:30etara ibiliko dira herrian zehar eta bildutako dirua eskolarako izango da. **Elorri Kultur Elkartekoak:** ohitura zahar hau berreskuratu zuten elkartekoak xfarolekin eta baserriar jantzita, koplariak eta trikitilariak lagun dituztela, 18:30etan aterako dira Elorripetik. Bildutakoa, Elorri urtean zehar burutzen dituen kultur ekintzetarako erabiliko da. **Kabalgataren ingurukoak:** aurten 2. aldiz, baserriar jantzita eta trikitilari eta koplariekin, 18:30etan aterako dira Madalenatik. Bildutakoa, kabalgataren gastuetarako eta 3. mundurako izango da. Argazkian 3 eta 7 urte artekoak iazko eskean.

Errejonak: Orioko 2-0 Segura. **Jubenilak:** Euskalduna 0-1 Segura. **Kadeteak:** Zarautz 2-1 Aizkorri. **Infantilak:** Aizkorri 0-0 Lehen-gokoak.

Asteburuan etxean: Ju-

benilak: Segura-Lehengokoak, zapatuan, 15:30etan.

Errejonak: Segura-An-tzuola, zapatuan, 17:15etan.

Kadeteak: Aizkorri-Real Sociedad, jaien, 11:30etan.



Idiazabalgo krosa: 36 herritarrek parte hartu zuten, eskolatik 32 neska-mutikok eta 4 helduk. Sarituak: **Neska alebina:** 60 partehartzailetatik 2. geratu zen Eluska Gerriko 1.000 metrotan. **Mutil alebina:** 101etatik lehenengo postua lortu zuen Eneko Agirrezabalek 1.100 metrotan. **Neska infantilak:** 16tatik 3. izan zen Garbiñe Etxezarreta 1.100 metrotan. **Mutil infantilak:** 35etatik 3. egin zuen Iker Agirrezabalek 1.900 metrotan. Argazkian partehartzaile gehienak.

Labur labur

● Urtarrilaren 18an, Ezkio-Itsason izan zen beteranoen Gipuzkoako Kros Txapelketan, 5.100 metroko distantzian, 35 partehartzailetatik 7. sailkatu zen Zeles Sodupe.

● **Bola:** urtarrilaren 18an Seguran izan zen taldekako 2. eta azken saioan, 2. sailkatu zen herriko taldea 516 birla jota; hernaniarrak baino 15 gutxiago. Bakarkakoan, Xepeño Agirre izan zen irabazlea 48 birla jota.

● San Sebastiaandik Kaleguenerako **argiteria berri-tzearen lanak** bukatzeaz dituzte. Lehen 8 farol zeuden tartean 27 jarri dituzte.

● Urtarrilaren 27an hasi ziren 'Atsedeen' jubilatuen elkarteko **XIII. mus, tute eta punttu txapelketak**. Iaz baino 2 bikote gehiagok eman dute izena. Musean 10 bikote arituko dira, tutean 9 eta punttuan 12. Kanporaketak iluntzeetan jokatu dira Atsedenen bertan eta finalak otsailaren amaiera aldera izango dira.

● **Udal liburutegirako arduradun postua** eskaini du Udalak. Izen ematea Udaletxean egin behar da urtarrilaren 30erako. Derrigorrezkoa da herritarra izatea.

● **Futbol elkartekoek** euren gastuei aurre egin ahal izateko errifak atera dituzte. Hauek, tabernetan edo hainbat herritarri eskatuz eskura daitezke.

● **'Segura aztergai' plata-forma:** kultur zein urbanismo komisiotan bina lagunak parte hartuko dute informazioa ziurtatzeko. Bariantaz eta plan bereziaz mahainguruak antolatu nahi dira.

Joseba Telleria

DOLOMITETAN IZAN DIRA IRAUPEN ESKIKO 2 ZEHARKALDITAN **Marcialonga: 9 goierritar, 5.000 partaideen artean, 63 km.ko ibilbidea burutzeko**

Goierritar talde bat Dolomitetan izan da hil honen 18tik 25era iraupen eskiko bi zeharkalditan parte hartzen. Italia eta Austria arteko mugan egin dira biak, Tirol eskualdean: Dolomitenlauf izenekoa Lienzen (Austria) korritu zen eta Marcialonga Vall di Fassin (Italia). Tradizio handiko probak dira biak, eta bereziki herrikoia da Marcialonga. Aurtengoa 25. edizioa zuten eta ia 5.000 lagunek korritu zuten 63 kilometroko ibilbidea.

Igor Mertxan, Gabriel Goenaga, Rufino Murgia, Juan Hernandorena, Antton Dorronsoro, Mikel Escaño, Imanol Urrestarazu, Joxe Mari Albisu eta Txomin Barandiaran Goierriko partehartzaileek arazorik gabe amaitu zuten ibilbidea. Gehienek aurrez halako proba luzeetan parte hartu ez zuten arren, gustora agertu ziren amaieran. Ibil-



Lasterketa hasi aurretik ateratako argazkian goierritar ordezkari onena izan zen Antton Dorronsoro falta da.

bidea atsegina eta polita zela nabarmendu zuten, eta lagungarri izan zutela hori 63 kilometroak egiteko.

Trentinoko Val di Fassin egiten da Marcialonga zeharkaldia, Dolomiten bihotzean. Bailara horretako ia herri guztiak zeharkatzen ditu ibilbideak, eta giro aparta sortzen da eskiatzaileak animatzeko.

Irteera ikusgarria

Irteera ere oso ikusgarria izan zen, partehartzaile kopuru handia zela eta. Zatikatu egin zuten; eliteko 200 eskiatzaile ingururi eman zieten irteera lehenik eta gainontzekoak hiru txandatan irten ziren ordu erdiko epean. Ondorioz, lehenengo 10 kilometroak nahasi samarrak gertatu zi-

ren eta zaila izan zen erritmoa hartzea. Ondorengo kilometroak ilara luze batean egin zituzten eskiatzaileek eta pilaketak sortu ziren momentu batzuetan. Dena den, denbora irabaztea baino ibilbidea bukatzea zen gehienen helburua, eta giro ona nagusitu zen.

Antton Dorronsoro

Goierritarren artean Antton Dorronsoro beasaingarria ibili zen ondoen, Marcialongan eta Dolomitenlufen lehena amaitu baitzuen. Italiako proba 4 ordu eta 19 minututan egin zuen; 4 ordu eta 34 minutu behar izan zituen Imanol Urrestarazuk eta 4 ordu eta 40 minutu Igor Mertxanek.

Estilo librean egiten da Marcialonga eta patinatzaile-

lea edo klasikoa aukeratzen da Austriako Dolomitenlufen. Aurreko igandean, hilaren 18an, korritu zuten proba hori Lienzen bederratziko goierritarrek. 4.000 lagunetik gora parte hartu zuten, eta ibilbidea gogorra goa izan zela nabarmendu zuten gehienek, gora gehiago egin behar zelako. Hala ere, 42 kilometroko ibilbidea paraje zoragarrian egin zen.

Euskal ordezkariak

Goierritarrekin batera Tolosako beste lau lagunak eta Elgoibarko batek parte hartu zuten Dolomitetako zeharkaldietan, eta haiek izan ziren Euskal Herriko ordezkari bakarrak. Aipatu behar da, hala ere, Marcialongan Haritz Zunzunegi tolosarrak -Espainiako selekzioako partaideak- 25. lekuan amaitu zuela.

Dolomitetan pasatu dituzten hamar egunetan inguruneaz gozatu eta iraupeneko eskiak herrialde hartan eskaintzen dituen aukerak ikusi ahal izan dituzte. Izan ere, Vall di Fassin bertan pista luze eta zabalak nonahi daude, sarrerak ordaindu beharrik ez da izaten eta eskiatzaileentzako autobusak dohainik dira.

Bateak Taldea

SEGURUEN PROFESIONALAK

MUNDUATE

Hirigoien, 12 LAZKAO

Tfnoa.: 88 86 20 Faxes: 88 91 18

Tfno. mugikorra: 908 57 91 92



☎ 88 55 00 ORDIZIA

Santa Ageda bezperan talde ugari ibiliko da eskean ohitura zaharrari eutsiz

Kopla zaharrak kantari talde asko ibiliko da otsailaren 4an, Santa Ageda bezperan. Herri batzuetan Santa Eske tradizioa galduta egon bada ere, piskanaka-piskanaka berreskuratzen ari dira. Goierrin tradiziorik handiena dutenak, Lazkao, Matximenta auzoa dira.

Lazkaon eta Matximentan betitik gogoratzen dute Santa Eskean ibiltzeko ohitura. Lazkaon hasieran herrian ibiltzen ziren kantari, Santa Agedako betiko abestiak eta jarritako koplak abesten, iluntzean. Orain dela 35-40 bat urte, talde handia batzen zela eta, batzuk Lazkaomendira joaten hasi ziren. Gero guztiak herrian elkartzen ziren. Honek ez omen zuen askorik iraun.

Aurten 4. urtea da lazkaotarrak koplariekin Lazkaomendira igotzen direla. Goizetik hasita, baserri baserri koplak abestera joaten dira, Jon Agirre, Jon Lasa eta Andres Barandiaran koplariekin. Arratsalde partean Zubierreka auzoan arituko dira eta iluntzean herriko tabernetan.

Bildutako diruarekin afaria egiten dute abesten ibiltakoek eta sobratzen den dirua presoentzat izaten da. Diru-bilketa dela eta, bada hainbat bitxikeria Lazkao aldean. 1935ean Itsasondan lubiziak baserri bat eraman zuen eta bertakoentzat izan zen dirua. Urte horretan bertan, Palazioan Dukea omen



Matximentarrak, koplari eta trikitilariekin.

zegoen eta bost duro eman omen zituen horretarako. 1963-64 urte inguruan Enpaundi baserriko idiak ito ziren eta bildutako dirua kalte-tuentzat izan zen.

Lazkaon bertan gaur egun beste bi talde ere ateratzen dira. Batetik, herriko abesbatzako hainbat kidek osatutako taldea. Kalez kale ibiltzen dira hauek kantari, azken 11-12 urteetan. Bestetik, San Benito ikastolako 2 eta 12 urte bitarteko haurrak. Arratsalde, 2.30ak aldera ateratzen dira ohiko koplak kantatzen. Bildutako dirua, ikasleen bidaiak finantzatzeko izaten da.

Matximenta

Azpeitiarena eta Beizamarena izateaz gain, Ezkio-Itsasoko eta Beasaingo auzoa da Matximenta. Auzoko festak, Santa Eskearekin hasi ohi dituzte. Orain dela 20 bat urte erreleboa hartu zuen taldea aritzen da oraindik ere, goizeko 9.00ak aldean hasita, koplak kantari. Kantarietako bat den Xabier Urbis-tondok adierazi digunez, berak betidanik ezagutu du Santa Eskerako tradizioa Matximentan.

Jakina da matximentarrek Azpeitiarako duten joera eta Santa Eskea ere, Azpeitian hasten dute. Landetan bazkaldu eta itzuleran, baserri-baserri, Mandubiraino, koplak kantatzen dituzte. Horretarako, Loidisaletxe bertsolariaren laguntza izaten dute. Etxe bakoitzean 6-7 koplak kantatzen dituzte.

10 bat laguneko taldea ibiltzen da egun osoan, guztiak ere furgoneta batean sartuta. Biltzen duten dirua festak antolatzeko erabiltzen dute.

Ataun

Duela 10 bat urte berreskuratu zuen Santa Eskea Ataungo Herri Batasunak. Ataun hain luzea eta sakabanutua denez, bi iluntzetan egiten dute jarduna, kotxeen laguntzaz. Santa Ageda bezperan, San Martingo plaza-tik abiatuko dira, 6.30etan eta hurrengo egunean, ordu berean, San Gregorioko plaza-tik. Ohizko koplak zaharrak kantatzen dituzte. Biltzen duten dirua HBrentzat izaten da.

Beasain

Beasainen 4 talde ibiliko dira kantuan.

Alkartasuna Lizeoko 3 urtetik 12 urtera bitarteko ikasleak aterako dira, ohitura zaharrari eutsiz. Urtetik urtera, koplak berriak sartzen dituzte erreperatorioan. Urte asko daramazkite ohitura honekin Lizeokoek. Guztiak, ere baserritarrez jantzi-ta joaten dira. 14:30etatik 16:30ak bitartean arituko dira, Lizeotik abiatu eta plaza-bitartean.

Loinazpe eta Murumendi ikastetxeetako 11-14 urte bitartekoak (150 bat lagun) iaz hasi ziren ateratzen. 18:30etan Ezkiaga auzotik abiatu eta Loinazpen bukatzen dute, Guraso Elkarteak antolatzen duen afari-merienda eta dantzaldiarekin. Ikasturte bukaerako bidaiak finantzatzeko erabiliko dute bildutako dirua.

Andramendi Ikastolako ikasleak ere, arratsalde 2.30etatik aurrera, ibiliko dira eta iluntzean, gurasoak eta beste hainbat lagun. Aurten Arrano Kultur Elkartearekin bat eginik antolatu dute Santa Eskea. Loinatz tabernatik abiatuko dira, 7.00etan. Koplariak izango dituzte lagun; besteak beste, Jokin Sorozabal. Ondoren, 9.00ak aldera, bertso-afaria izango da Arrano elkartearen.

Gabiria

Santa Ageda bezpera aste-bukaeran egokituz gero, haurrak eta gurasoak egun osoan kantari ibiltzen badira ere, aurten bezala asteguna izanez gero, herrian ohitura mantentzeagatik, eskolako ikasleak bakarrik ibiliko dira kantari herri kaskoan. Ohiko koplez gain, haurrek etxe bakoitzari dagozkion koplak prestatzen dituzte aurretik

eta horiek ere abesten dituzte. Dirua biltzea ez dute helburu, baina biltzen dutenarekin, merienda egiten dute.

Itsasondo

Duela 25en bat urte sortzen ari ziren Ikastolei laguntzeko dirua biltzeko helburuarekin berreskuratu zuten Santa Eskea Itsasondon. Gaur egun abesbatzak izaten du antolatze ardurua. Etkez etxe joaten dira, Mikel Mendizabalek koplak kantatuz, eta abesbatzak ahots ezberdinetan lagunduz. San Juan auzotik 6.30etan aterako dira. Biltzen duten dirua azken urte hauetan, Ruandara bidaltzen dute.

Legorreta

Helduek saiakeraren bat edo beste egin izan badute ere Santa Eskea berreskuratzeko, eskolako ikasleak dira azken urteetan ohitura mantentzen duten bakarrak, eskolaren helburua Euskal Herriko ohiturei eustea eta bultzatzea baita. Arratsaldeko 3.00ak aldera atera eta herriko kaleak zeharkatuko dituzte koplak kantari.

Mutiloa

Bost bat urte dira mutiloak gazteek Santa Eskearen ohitura berreskuratu zutela. Herriko jaiak antolatzeko diru piska bat biltzeko ideiarekin hasi ziren, eta bidez batez, herria alaitzeko helburuarekin. Baserriz baserri ibiltzen dira, Segura aldetik, kotxeen laguntzaz, iluntzeko 6.00etan hasita.

Olaberria

Urte askoren ondoren, aurtengo berreskuratzeko asmoa dute Santa Eskea Olaberrian. Gabon bezperan kantuan ateratzen den taldean sortu zen ohiturari berrekiteko ideia. Ezusterik izan ezetan, Agustin Agirre eta Anto-

nio Barandiaran herritar bertsolariak arituko dira koplak. Ahal diren baserri guztietatik pasatuko dira, iluntzeko 6.30etan hasita. Entseiuak, ostiraletan izaten dira, gimnasioan, 19.30etan.

Ordizia

Santa Ana abesbatzak 20 urte beteko ditu aurtengo Santa Eskean. Santa Ana abesbatzaren helburua ingurua poz-tua eta ohiturarekin betetzea dira. Tabernaz taberna ibiltzen dira iluntzeko 7.00etan aterata.

Jakintza eta Urdaneta ikastetxeetako 6 eta 15 urte bitarteko ikasleak ere ateratzen dira iluntzeko 6.00etan. Urte asko daramazkete ohiko koplak kantatuz ohitura mantenduz. Dirua biltzea ez omen dute helburu. Urdanetakako 3-5 urte bitartekoak auzoan ibiliko omen dira arratsaldean kantari.

Ormaiztegui

Aspalditxotik ateratzen dira Ormaiztegin Santa Eskean. Abesbatzatik hasi ziren antolatzen, gero eliza ingurutik. Diru bilketarik ez dute egiten. Iluntzeko 7.00etan aterako dira kantuan.

Segura

3 talde ateratzen dira:

Elorri Kultur Elkartea duela 10 bat urte hasi zen urte batzutan galduta egon zen ohitura berreskuratzen. Kalek kale eta auzoz auzo ibiltzen dira, iluntzean. Herriko bi bertsolari aritzen dira, etxe bakoitzeko bizilagunei koplak botatzen: Pedro Etxezarreta eta Joxe Insausti. Trikitilariak ere izaten dira. Dirua Elorri Kultur Elkartek urtean zehar egiten dituen ekintzetarako erabiltzen da.

Iaz lehenengo aldiz beste talde bat atera zen Santa Es-



Lazkaotarrak Lazkaomendin Santa Eskean.

kean. Erregeen Kabalgata antolatzeko talde bat elkartu zen eta hortik sortu zen Santa Eskeko ohitura berreskuratzeko ideia. Iaz erantzun ona izan zutela ikusita, aurtengo berriz aterako dira kantuan, iluntzeko 6.30etan Madalenatik. Herriko bi koplari izango dira kantuan. Biltzen duten diruaren erdia 3. mundura bidaliko dute; beste erdia, Erregeen Kabalgatako gastuei aurre egiteko erabiliko da, guztia Udaltxeari ez eskatzeagatik.

Eskolatik ere ateratzen dira, 3-12 urte bitarteko ikasleak, kalek kale, 14:30etan hasita.

Zaldibia

Ohitura zaharra da Zaldibia-ko. Goizeko 9.30ak aldera ateratzen da kantu taldea, baserriz baserri. Koplari ugari izaten dituzte, Patxi Iraola, Altzo Txiki, Joxi Irastorza, Iñigo Etcheberria... eta beste hainbat boluntario. Oinez egiten dute ibilbidea, nahiz eta batzutan kamioiaren laguntza izan. Eguberrietan ibili ez ziren auzoak zeharkatuko dituzte aurtengo.

Arratsaldeko 3.00ak aldera atera eta herrian hainbat geldialdi egiten dituzte koplak kantatzeko eskolako haurrek. Biltzen duten dirua, egiten dituzten bidaietarako erabiltzen dute. Parrokiatik

ere aterako dira kantari, azken orduan jakin izan duguenez. Kronikan berri gehiago.

Zegama

Zegaman aspaldikoa da ohitura baina duela 12 bat urte beherakada izan zuen eta herriko zenbait gazte ohitura berreskuratu zuen. Ondoren Orkatz abesbatzak hartu zuen antolatu eta abestien entseiuak egiteko ardurua. Aurtengo herriko hainbat bertsozale arituko da kantuan. Koplarietz gain, trikitilariak ere izaten dira giroa alaitzen, iluntzeko 7.00etan hasita. Biltzen duten diruarekin, afaria egiten dute. Eskolakoak ere ibiliko dira kantuan, 14:30etan hasita.

Zerain

Galduta egon bada ere, orain 10 bat urte berreskuratu zen ohitura. Kultur Etxeak antolatzen du. Iluntzeko 6.00etan, hasi, eta kotxeen laguntzaz (herria oso sakanatua baitago), urtero auzo ezberdin batean aritzen dira. Bukatu, herri kaskoan egiten dute. Biltzen den dirua Guinea Ecuatorialeko Akonibe herrira bidaltzen dute. Hori bai, Santa Eskea bukatutakoan, guztiak afaltzera joaten dira. Santa Eskean ateratzeko entseiuak astearte eta ostegunetan izaten dira, gaueko 9.00etan, Kultur Etxean.



1955. urteko Idiazabalgo 'Komunio Haundia'

Inazio Imazek utzi digu argazkia. Guztiak ezagutzea kosta bazaio ere, hona hemen azkenean zerrenda osoa:

Goitik hasita, ezkerretik eskubira: Rosario Mujika (katekista), Pepi Gorrotxategi (katekista), Joanito Aldasoro, Luis Azurmendi, Joxe Azurmendi, Lorentxo Iparragirre, On Hilario, Maria Angeles Aldasoro (katekista), On Antonio Jaurigi, Rosina Aranburu, Maria Angeles Aldasoro (katekista), Maria Angeles Gorrotxategi (katekista), Migel Mari Urbizu, Pako Aseginolaza eta Pako Ezizolaza.

2. ilaran: Teresa Aldasoro, Felix Esnaola, Mari Sol Iparragirre, Rosarito Rodriguez, Joanita Ariztimuño, Pilar Goiburu, Koro Urkia, Lurdes Katarain, Inazio Imaz, Pako Urreta, Bernardiño Elortza, Pedro Mari Telleria, Agustin Santana, Primi Ezizolaza (katekista) eta Pakito Iparragirre.

3. ilaran: Milagros Goiburu, Pepi Iriarte, Maria Jesus Imaz, Belen Santana, Mari Karmen Unanue, Bernardette (Ote-zabalen egona), Mari Karmen Mintegi, Mertxe Aranburu, Nekane Auzmendi, Sebastian Mujika eta Inazio Mujika.



Etorri zaigu berriro ere
Idiazabala San Blasa
Kimuren izenean
denok ondo pasa



**ANAIK
GARAJEA**

MEKANIKA ETA IBILGAILU KONPONKETA

Guardiko Industrialdea

☎ 18 74 83

IDIAZABAL



**AVICOLA
SAN BLAS, S.L.**

- Arrautza salmenta
- Bertako produktu ona
- 30 urteko esperientzia

Atxu etxea, 27

☎ 18 74 58 (oiletegitikoa) - ☎ 18 75 03 (etxekoa)

IDIAZABAL



AMPO S.COOP B.L.
IDIAZABAL Gipuzkoa



ALTZAIRU FUNDIZIOA

- Moldaturiko piezak.
- Zentrifugaturiko Tuboak.
 - * Aleatuak.
 - * Herdoiltezinak.
 - * Berogaitzak (Errefraktarioak).
 - * Nikel oinarritutako aleazioak.

AENOR-ek onartutako enpresa ISO 9002

☎ 18 80 00 - Faxa: 18 81 30



AMPO S.COOP R.L.
BEASAIN Gipuzkoa



BALBULAGINTZA

- AMPO Koperatibak balbulagintzarako duen Dibisioaren merkatal izena: POYAM da.
- Bertan, 2" diametro duten balbuletatik 48" arterainokoak egiten dira.
- Balbula hauek, Petrolio, Petrokimika, Energia, Alumina, Kimika Industrietarako eta Kriogenika Lantegietarako, Industri nahiz etxeetarako gas banatzaileentzat egiten dira.
- Honako etxe hauek homologatuta: EXXON, TEXACO, AMOCO, CONOCO, DUPONT, B.P., REPSOL, ENA-GAS, GAS EUSKADI.

☎ 88 60 50 - Faxa: 88 88 47



JASO, EQUIPOS DE OBRAS, S.A.

Garabi garaiak eta eraikuntzaren beharrezan aplikatutako teknologia modernoa

- ✓ **Fabrikazioa**
- ✓ **Salmenta**
- ✓ **Alokatzea**



☎ 18 70 00 - Faxa: 18 70 20
N-1, 415 Kma. IDIAZABAL

El Etxe'1 Elektragailua

URTARRILAK 29-TIK
OTSAILAK 7-A ARTE

Ordainketa Berezia Aukera zurian:

Garbigailu,
ontzigarbigailu
eta hotzgailuetan
sei alditan
interesik gabe.



Balay 3ts- 8222 garbigailua

- Gaitasuna: 4,5 Kg.
- 10 atal
- Hotzbero autagailua
- Ur-eragintze autagailua
- Zentrifugatu autagailua
- 700 r.p.m.
- 69 l-ko ur kontsumoa
- Km 1/h.-ko elektrizitate kontsumoa
- Neurriak: 85x59,6x58 zn.

~~64.900~~
59.900

3.000

hilero
pta. *



PRYCA